

TOKIKOM

2019ko maiatza | 192. zenbakia

ai!r!

txorierriko aldizkaria

Udal hauteskundeak



Gure hezkuntza-eskaintza

BATXILERGOA

- ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredua)
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredua)

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Automatizazioa eta Robotika industriala
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Diseinua Fabrikazioa Mekanikoan
- Produkzioaren Programazioa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TxORIERRI
S.COOP.

**Hartu zure
etorkizunaren
agintea**

**Kostuaren eta zerbitzuaren
arteko erlazio egokiena**



Ate irekiak

Zatoz ezagutzera

Derion, Bizkaiko Parke Teknologikoaren ondoan gaude. Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu.



94 403 40 60
www.txorierri.net

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAIA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TxORIERRI
S.COOP.

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 · 48160 DERIO · Tel.: 94 403 40 60 · www.txorierri.net



HEZKUNTZA KOOPERATIBA INTEGRALA
Familiak, Langileak, Enpresak eta Erakundeak
zuzenean parte hartzen dute ikastolaren
kudeaketan.

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Jose Gaztañaga Ugarte, errotaria
-  **12** Gurean izan da... Diablos Voramar taldea
-  **14** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **16** Parkea Musik Fest
-  **17** Udal hauteskundeak
-  **33** Tximintx euskaldunen komunitatea
-  **36** Gaztea eta... Patxi Suarez, saskibaloijokalaria
-  **38** Zamudioko Pazko jaiak
-  **28** Izpiluan... Oreka berreskuratzen
-  **35** Aikorrizketa... Pedro Urriaga, baso-bertsolaria
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Diablos Voramar taldea



33 Tximintx euskaldunen komunitatea



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Altzora eta Tximintx euskaldunen komunitatea)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Ines Serrano, Itziar Larrazabal, Itxaso Orbegoza, Einer Larrabeiti, Aner Mentxaka, Xabier Diaz, Idoia Andres, Jon Goikouria Larra-beiti, Itallen bertso eskola eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadako argazkia: Jon Goikouria Larra-beiti

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



INES SERRANO
Filosofian lizentziaduna

Denboraren ekonomia eta erosotasuna

saltzaileak zera gogoratu nahi izan zigun bezero guztiei: gure txanda itxaron barik, inguruko apalategietan mota guztietako arrainak zeudela, egun berean garbitu eta prestatuak. Erosoagorik ezin, eta denbora alferrik galtzeko inolako aitzakiarik gabe. Egia zen, baina itsasoa bete duten zorioneko plastikozko ontzietan, tamalez.

Nik, artean, ez neukan argi zein arrain mota aukeratu, eta amildegiaren ertzean kulunkatzea gustuko dudanez, nire denbora preziatua modu eskasean erabiltzea ebatsi nuen, alegia, itxaroten. Eta han zeuden itsaski mota guztiei begira jarri nintzen, izenak eta izanak elkar lotuz eta, bide batez, langileen euren disezio lanak miresten hasiz ere: orain arrainen azala zabaldur, orain hezurren inguru ebakera garbiak burutu, orain mota eta tamaina guztietako xafak eta xerrak prestatu... Hitz batez, lehengaiaren eraldatzen eman ohi diren pauso guztiak

arretaz aditu nituen, bat ere galdu barik, artea leku eta modu askotan atzeman daitekeela ohartuz. Denbora ondo profitatuz.

Txanda heltzean, aholku emankor batzuen ostean, nire aukerak azaldu nizkion, eta horrekin batera plastikozko kutxa luzatu ere, eskatutakoa gordetzeko. Orintsu hasi naiz erabiltzen, eta pozik. Oso ideia ona iriztzi zion, bai, norberak bere ontzia eroateari, lehentxeago poliespanezko erretiluetara jo bazuen ere; baina zer egingo dugu ba, bezero guztien alde egon behar da eta, erosotasuna, badakizu... Bai, erosotasuna gauza itzela da eta.

Hala ere, gustuko dut nire denbora neuk kudeatzea, erosotasunaz hausnartzea, globalizazioaren gezurak banan-banan aurkitzea, sistemaren sotiltasunak ikustea. Ez baikara ohartzen eroso eta arinaren izenean gutxika-gutxika gertatzen ari dena jada gertatzen ari dela.

Bai, bizi garen gizartean eta garaian, antza, denbora aurrezteak zein erosotasuna balio ziurrak dira. Harro gaude hiruzpalau gauza batera egin ahal ditugulako, eta klik soil batekin pentsaezina zena egia bihurtzen delako inolako oztopo barik. Hain erraz eta eroso suertatzen da dena: *you name it, you've got it*, biba globalizazioa...

Lehen eguneko pasadizo batek, bada, gai hau berriro ekarri zidan gogora. Izan ere, supermerkatu batean arrandegiko

Euskaltel: beste urrats bat pribatizazioan

Euskaltel 1995ean sortu zen diru publikoa zela medio: Eusko Jaurlaritzak % 40 jarri zuen, eta aurrezki-kutxek gainerako % 60a. Hura pribatizatze modua hau izan da: 2012an, kapitalaren % 50,1 esku pribatuetan utzi zuten merke (ICV funtsak % 49,1 erosi zuen); eta 2015ean, enpresa burtsara ateratzeko egin zen balorazioarekin, ICV bere akzio guztiak saldu eta erositako prezioa hiru-koiztu egin zuen.

Orain kapitalaren % 80tik gora inbertsio-funtsen eta burtsako beste inbertitzaile pribatu batzuen esku dago: Jaurlaritzak ez dauka akzio bat ere eta



ITZIAR LARRABAZAL
ELAko eskualde arduraduna

Kutxabankeak % 20tik behera dauka; portzentajea gero eta murriztagoa da. Euskal erakundeak nahita galtzen ari dira sektore estrategiko bateko enpresa nagusi baten kontrol publikoa.

Euskaltelen pribatizazio, kontrol publikoaren galera eta deserrotze prozesuak ez du etenik. Azken urratsa Zegona inbertsio-funtsak egin du, enpresaren akziodun nagusi bihurtuta. Inbertsio-funtsen lehentasuna –eta Zegonak ez du ezkutatu– Euskalteletik eperik laburrenean ahalik etekin handiena lortzea da, bezeroen eta langileen bizkar. Zertan dabil Eusko Jaurlaritza?

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
Tel: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, beheak
48160 DERIO (Bizkaia)

–Especialitate guztiak
zentro bakar batean
–Aurrekontua doan
–Especialitatea:
umeak



Motorrek orro egin dute Loion

a: Jon Goikouria Larrabeiti

TxoriBikers bertako motorzaleen elkarteak motorren kontzentrazioa antolatu zuten apirilaren azken zapatuan, eta gupil biko ibilgailuak protagonista izan ziren egun osoan. Izan ere, Loion hainbat motor-gidari batu ziren eta herritarrei, zaleei eta bisitariei gozatze-ko aukera eman zieten. Motor-gidariak errepidera irten ziren ibilaldia egitera eta, ondoren, tabernaz taberna ere ibili ziren, herria girotzeko. Herri-bazkaria egon zen, motorza-leen jokoak eta erakustaldia, eta kontzertua. Egun biribila, motorzaleentzat.



Sondikako Udal eta Apezpikutzaren arteko hitzarmena

Joan den azaroan, Udalak San Joan elizaren ondoan dagoen lursaila urbanizatzeko proiektua onartu zuen, bertan plaza handi bat atontzeko. Horren harira, Apezpikutzarekin ibili da harremanetan, alboan dagoen beste lursail baten jabea delako. Udalak Apezpikutzaren partzela ere urbanizatzeko prozesuan sartzea izan du helburu, gunea uniformea izan dadin. Jakinarazi duten moduan, alde biek hitzarmena egin dute eta, horren bidez, Apezpikutzak orubea erabiltzen utziko dio Udalari. Plaza berriak 1.227 metro karratu edukiko ditu, eta, besteak beste, lorategiak, LED argiak eta hiri-altzariak ipiniko dituzte bertan.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

Bizkaia
- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Txakolinaren eguna, Lezaman

Ekainaren 2an izango da, eta 11:00etatik aurrera hainbat ekitaldi egingo dira Hilario Astorki plazan eta horren inguruetan. Lezamako 2018ko txakolina dastatzeaz gainera, herriko txakolinaren enbaxadorea izendatuko da. Era berean, dantzen agerraldia, musika eta umeentzako jokoak eta tailerrak egongo dira. Ohikoa den moduan, nekazaritzako produktuak ipiniko dira salgai eta erakusgai, eta erromeria egongo da 17:00etara arte.

Aldarrikapena eta jai-giroa, Bizkargi Egunean

Maiatzaren 5ean Bizkargi Eguna ospatu zen eta mendi tontorrean lagun asko batu ziren eusko guda-riak gogora ekarri eta omenaldia egitera. Aldarrikapena eta jai-giroa uztartu ziren bertan eta, Bizkargi Gogoratuz elkarteak antolatuta, zenbait ekintza izan ziren goizean, hala nola bertso-saioa, Etxanoko Nagusiari aginte-makila ematea eta kontzertua. Arratsaldean, Larrabetzuk hartu zuen lekukoa: ekitaldia egin zen eta ostean erromeria izan zen Imuntzo eta Beloki bikotearen eskutik. Gainera, aurreko egunean Bizkargira igoera egin zuten zortigarren aldiz.

Iaz, 500 lagunek topatu zuten lana EGAZ Txorierriren bidez

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuak jakinarazi duen moduan, 2018an 521 pertsonari lagundu zien lana topatzen. Lagun horien % 15ek kontratu mugagabea eta lanaldi osokoa lortu zuten, eta guztira 503 pertsonak hartu zuten parte EGAZeko ikastaroetan eta orientazio-jardueretan; 2017an baino % 68 lagun gehiagok. Txorierriko langabezia-tasa % 7,65ekoa izan zen 2018ko amaieran; Bizkaikoa eta Euskadikoa —% 11,3 eta % 10,4 hurrenez hurren— baino txikiagoa.

EGAZ Txorierriera hautagai bila joan ziren enpresek profil hauek eskatu zituzten: manufaktura-industria eta eraikuntzako langileak (152), pertsona teknikoak eta laguntzaile profesionalak (140), oinarriko lanetarako langileak (139), zientzialari profesionalak eta intelektualak (135) eta bulegoko langileak (86). Horrezaz gainera, zaharberritze-lanak egiteko pertsonak eskatu zituzten, langileak eta saltzaileak, instalazioetako eta makineriako langileak eta zuzendaritzako eta gerentziako langileak. Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzura arlo hauetako 333 enpresak jo zuten: merkataritza eta ostalaritza, manufaktura-industria, artea, entretenimendua, zientzia, administrazioa, eraikuntza, komunikazioa, finantzak eta nekazaritza. Guztira 1.148 lanpostu eskaini ziren.



Bestetik, EGAZ Txorierriko 49 enpresa martxan jartzen lagundu zuen 2018an. Enpresa horiek 79 lanpostu sortu dituzte (59 lanpostu, 2017an), eta proiektuetan 1.742.600 euro inbertitu ziren. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Europako Gizarte Funtzak inbertsio horien % 63 finantzatu zuten. Zerbitzuaren datuen arabera, Txorierriko ekintzaileak 45 urtetik gorako gizonezkoak eta 35 urtetik 44 urtera bitarteko emakumezkoak dira, eta erdi- edo goi-mailako ikasketak dituzte.

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai lezagu Facebook-en

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**
Guri-itzuak, orkondeak
Auzokoen konunitateak
Mantentze guri-itzuak
Itelgoak eta lokailak
Olinu emarietako garbiketarako
Ikastetxeak
Zabur bitaketa
Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXENKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98 Mungialde etorbidea, 25
Fax: 94 454 14 13 48160 DERIO

tik tak
EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria
9€
T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

HAUR-MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Txorierrri taldeak Harri Handiaren erronka galdu zuen Usurbilen

a: Itxaso Orbegoza, NOAUA! aldizkaria

Maiatzaren 12an, Txorierrri Harri Handiaren erronka galdu zuen Lasuen talde bizkaitarraren kontra, Usurbilen. Bailarako taldeak 3.800 kiloko harria eraman behar izan zuen arrastaka 30 minutuan, eta marka hau egin zuten: bederatziz zinta (lehenengo zintak 3,8 metro dauka, eta gainerakoek, 2,5 m), metro bi eta 40 cm. Aurkariek, aldiz, 10 zinta, metro bi eta 34 cm egin zuten. Txapelketa Usurbil Herri Kirol Elkartek antolatu zuen.

Sei tiratzailek osatu zuten Txorierrri taldea, lau gizonezkoak –Eneko Bilbao zamudioztarra, Iñigo Aurrekoetxea Gotxa derioztarra eta Aitor eta Gorka de la Concepción erandioztarrak– eta emakumez-

ko bik –Elisabeth Txertudi kortezubierra eta Alatzne Etxaburua gipuzkoarra–. “Iaz, txapelketa baino, erakustaldia egin zen eta taldea zazpi gizonok osatu genuen; aurten, lehiaketari begira, talde mistoa sortzea proposatu digute eta pozarren onartu dugu”, esan digu Bilbaok.

Porrot egin duten arren, zamudioztarra pozik agertu da. “Hasiera batean, Lasuen baino azkarrago ibili ginen, baina gero arazoak izan genituen eta ezin izan genuen garaipena lortu. Izan ere, Usurbil-

go probalekua zuloz beteta dago. Hau da, harria mugitzeaz gainera, ondo bideratu behar duzu; bestela, zulo horietako batean sartzen bada, zaila da handik ateratzeta. Eta hori da, hain zuzen ere, gertatu zitzaiguna”.

Harri Handia Lehiaketa ez da azken 32 urteotan egin. Lasuen eta Txorierrriekin batera, beste talde batek hartu zuen parte erakustaldian, Emarri gipuzkoarra. Guztira, 22 emakumezkoak osatu zuten taldea eta harria egokitu behar izan zuten, hainbeste lagunaren artean mugitu ahal izateko. Astigaragako neskek hiru plaza eta zinta biko marka lortu zuten. Plazan jende asko batu zen eta giro ederra egon zen lehiaketan.



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zakarditu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiroprasajia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txorierrri etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

**TABERNA
GAZTE**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Kongresurako hauteskundeak

EAJ nagusitu zen Txorierrin

Hego Euskal Herriko joerari jarraituta, EAJ-PNVk lortu zuen boto gehien Txorierrin, 5.735 boto hain zuzen ere. Jeltzaleek 2016ko hauteskundeetan baino 1.228 boto gehiago eskuratu dituzte. EH Bilduk 2.319 boto jaso ditu eta bigarren alderdia izan da; 2016an baino 521 boto gehiago izan ditu. Elkarrekin Podemosek, berriz, 904 boto galdu ditu, aurtengo hauteskundeetan botoa 1.950 lagunek eman diote eta. PSEk, bestalde, 1.707 boto lortu ditu, aurrekoan baino 632 boto gehiago.

PPk ere botoak galdu ditu Txorierrin: 372 (563 boto jaso ditu aurtengo hauteskundeetan); Ciudadanosok 26 boto gehiago eskuratu ditu (305 boto, aurtengo

hauteskundeetan); eta VOXek 185 boto gehiago lortu ditu (190 boto, aurtengo hauteskundeetan). Parte-hartzeari dagokionez, aurtengo txorierritar gehiagok hartu dute parte hauteskundeetan: 13.098 lagun, hain zuzen ere.

Hego Euskal Herriko biztanleek 23 diputatu aukeratu dituzte Espainiako Diputatuen Kongresurako: EAJ-PNVk, sei eserleku; Elkarrekin Podemosek, bost eserleku; EH Bilduk, lau eserleku; PSEk, lau eserleku; PSNk, eserleku bi; eta Navarra Sumak, eserleku bi. Espainian PSOEk irabazi ditu hauteskundeak (123 diputatu), baina hitzarmenak beharko ditu gehien-goia osatzeko.

ZAMUDIO		
	2019	2016
EAJ-PNV	856 % 45,27	735 % 41,5
EH BILDU	398 % 21,05	340 % 19,2
ELKARREKIN PODEMOS	259 % 13,7	408 % 23,04
PSE	231 % 12,22	141 % 7,96
PP	57 % 3,01	85 % 4,08
VOX	27 % 1,43	
CIUDADANOS	23 % 1,22	39 % 2,2
PACMA	17 % 0,9	3 % 0,17
BESTEAK	7 % 0,38	4 % 0,23
UPyD		1 % 0,06
ESCAÑOS EN BLANCO		1 % 0,06
PCPE		2 % 0,11
ZURIAK	16 % 0,85	12 % 0,68
BALIOG.	20	21
PARTE-H.	1.911 % 76,75	1.792 % 70,19
ABST.	579 % 23,25	761 % 29,81

LARRABETZU		
	2019	2016
EH BILDU	593 % 45,62	982 % 28,66
EAJ-PNV	478 % 36,77	570 % 16,64
ELKARREKIN PODEMOS	120 % 9,23	1.049 % 30,62
PSE	54 % 4,15	336 % 9,81
PP	21 % 1,62	322 % 9,4
VOX	12 % 0,92	85 % 2,48
PACMA	8 % 0,62	3 % 0,09
CIUDADANOS	8 % 0,62	32 % 0,93
BESTEAK	2 % 0,16	3 % 0,09
ESCAÑOS EN BLANCO		2 % 0,06
PCPE		9 % 0,26
ZURIAK	4 % 0,31	1 % 0,03
BALIOG.	9	32 % 0,93
PARTE-H.	1.310 % 83,60	33
ABST.	257 % 16,40	3.459 % 71,48

SONDIKA		
	2019	2016
EAJ-PNV	1.324 % 47,1	1.104 % 42,46
ELKARREKIN PODEMOS	402 % 14,3	615 % 23,65
EH BILDU	383 % 13,63	275 % 10,58
PSE	367 % 13,06	213 % 8,19
PP	161 % 5,73	260 % 10
CIUDADANOS	79 % 2,81	80 % 3,08
PACMA	34 % 1,21	22 % 0,85
VOX	28 % 1	1 % 0,04
BESTEAK	6 % 0,21	2 % 0,08
UPyD		2 % 0,08
ESCAÑOS EN BLANCO		3 % 0,12
PCPE		1 % 0,04
ZURIAK	27 % 0,96	22 % 0,85
BALIOG.	21	25
PARTE-H.	2.832 % 79,93	2.625 % 74,77
ABST.	711 % 20,07	886 % 25,23

DERIO		
	2019	2016
EAJ-PNV	1.413 % 35,22	982 % 28,66
PSE	818 % 20,39	570 % 16,64
ELKARREKIN PODEMOS	815 % 20,31	1.049 % 30,62
EH BILDU	504 % 12,56	336 % 9,81
PP	194 % 4,84	322 % 9,4
CIUDADANOS	125 % 3,12	85 % 2,48
VOX	69 % 1,72	3 % 0,09
PACMA	35 % 0,87	32 % 0,93
BESTEAK	17 % 0,42	3 % 0,09
UPyD		2 % 0,06
ESCAÑOS EN BLANCO		9 % 0,26
PCPE		1 % 0,03
ZURIAK	22 % 0,55	32 % 0,93
BALIOG.	30	33
PARTE-H.	4.042 % 78,47	3.459 % 71,48
ABST.	1.109 % 21,53	1.380 % 28,22

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana, 1-3. SONDIKA

IRATXO
gozategia

tarta personalizatuak
brufak
keak
pastelak
pastak

Mikel Zureta, 2 - 5. leña • Sondika, 48150 • 94 645 89 19

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. leña • 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 • 689 99 88 43 • lzpilen@gmail.com

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

kuragandik gertu

ABIOLKUTARITZA - TASAGIOA
ALOKATZETAK - ENKALDATZETAK
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

LEZAMA		
	2019	2016
EAJ-PNV	820 % 54,02	619 % 45,85
EH BILDU	293 % 19,3	247 % 18,3
ELKARREKIN PODEMOS	185 % 12,19	312 % 23,11
PSE	136 % 8,96	69 % 5,11
PP	38 % 2,5	67 % 4,96
CIUDADANOS	16 % 1,05	21 % 1,56
VOX	15 % 0,99	
PACMA	10 % 0,66	9 % 0,67
BESTEAK	2 % 0,13	2 % 0,15
ZURIAK	3 % 0,20	4 % 0,30
BALIOG.	14	11
PARTE-H.	1.532 % 81,36	1.361 % 72,86
ABST.	351 % 18,64	507 % 27,14

LOIU		
	2019	2016
EAJ-PNV	844 % 57,43	688 % 50,93
ELKARREKIN PODEMOS	169 % 11,56	261 % 19,32
EH BILDU	148 % 10,12	116 % 8,59
PSE	101 % 6,91	62 % 4,59
PP	92 % 6,29	169 % 12,51
CIUDADANOS	54 % 3,69	41 % 3,03
VOX	39 % 2,67	1 % 0,07
PACMA	7 % 0,48	6 % 0,44
BESTEAK	2 % 0,14	
ZURIAK	6 % 0,41	7 % 0,52
BALIOG.	9	10
PARTE-H.	1.471 % 81,41	1.361 % 74,17
ABST.	336 % 18,59	474 % 25,83

Gariza Films 2012 eta 2014 urte bitartean jaiotako mutiko baten bila dabil

Lara Izagirre hurrengo filma, *Nora*, prestatzen dabil, eta pertsonaietarik bat Markel da, sei urteko umea. Gariza Films Larrabetzuko ekoiztetxea 2012 eta 2014 urte bitartean jaiotako mutiko baten bila dabil, Markelen papera egin dezan. Castinga Zornotzako Zelaieta Zentroan izango da maiatzaren 24an, arratsaldean, eta maiatzaren 25ean, goizean zein arratsaldean.

Castingean parte hartu ahal izateko, e-mail bat idatzi behar da garizafilmscasting@gmail.com helbide elektronikora, eta bertan datu hauek adierazi: izen-abizenak, jaiotze-data, telefonoa eta argazkia. Era berean, jakinarazi behar da zein egunetan nahiago den castingera joan. Aurkezten direnek euskara jakin behar dute. Informazio gehiagorako: 94 618 12 77 telefono zenbakia eta lehen aipatutako helbide elektronikoa.

Gaizka Larrazabalek Athleticen lehen taldean jokatu du

Klubak jakinarazi duen moduan, loiuztarra lehen taldeko jokalaria izango da 2021eko ekainera arte. Hegaleko eskuinak 21 urte ditu eta gazte-mailako azken denboraldia Danok Bat taldean eman zuen; handik Zamudio taldera joan zen. Aurtengo denboraldian 31 partida jokatu ditu Bilbao Athletic taldean eta bederatzi gol sartu ditu. Denboraldi-aurretik egongo da Garitano-ren aginduetara, eta Susaetak eta Sabin Merinok utzitako hutsunea beteko du. Gaztea Aitor Larrazabalen semea da.

Kezkatuta agertu dira 11-13 sumarioko auzipetuak, baina baikor



Auzitegi Nazionalak iragarri moduan, irailaren 16an hasiko da 11-13 sumarioaren epaiketa. Fiskaltzak zortzi urtetik 20 urtera bitarteko espetxe-zigorrek eskatu dituzte epaituko diren 47 lagunentzat. Horien artean, hiru txorieritar daude: Ibon Meñika, Nagore Lopez de Luzuriaga eta Naia Zuria-rrain. "Kezkatuta gaude, noski, zigorrak oso handiak direlako, baina, gutxienez, Euskal Herrian elkartasuna adierazi digute hainbat eragilek: sindikatuek, kultura arloko lagunek...", esan digu Meñikak.

Akusatuak euskal presoan aldeko zenbait elkartetan zebiltzan (Herrira, Jaiki Adi eta Etxerat). Gainera, abokatuak eta bitartekariak ere badira auzipetuen artean. Guztiei ETA erakundearen kideak izatea leporatzen diete. Euren esanetan, epaiketa zentzugabekeria da. "Presoen eskubideen aldeko manifestazioak antolatzeagatik, presoak epaitegietan defendatzeagatik, bitartekari lanak egiteagatik eta preso senideak izateagatik epaitzen gaituzte", adierazi dute ohar batean.

Inputatuak behin-behineko askatasunean daude, eta bi asterik behin epailearen aurrean agertu behar dute. Meñikak epaiketak ekarriko dituen ondorioak azpimarratu ditu. "Dirutza gastatu beharko dugu: batetik, abokatuak ordaintzeko. Izan ere, hasiera batean geneuzkanak ere atxilotu

dituzte eta beste batzuk kontratatu behar izan ditugu. Eta bestetik, irailetik azarora bitartean 20 saio ditugu epaitegian, hau da, hainbat aldiz joan beharko dugu Madrilerara eta bertan gaua eman".

"Hala ere, txarrena hau da: makro-prozesu honek ez dauka zentzurik Euskal Herrian, noiz eta 2019an, ETA desagertuta dago eta. Auziaren instrukzioa egin duen Eloy Velasco epaileak berak jarri du zalantzan gure elkarteak ETA erakundeko kideak izatea. Jarraitu nahi dugu gure herrian, azken urteotan, bake eta elkarbizitzaren alde eman diren pausoak ematen, baina, antza denez, Estatu espainolak, ez. Gu garen bezala aurkeztuko gara epailearen aurrean, gure lana publikoa eta garde-na delako. Presoek laguntza behar dute eta ezin gaituzte horregatik epaitu".

Auzipetuak defentsa prestatzen dabil-tza. "Mobilizazio herritar indartsu bat prestatzen hasi gara, epaiketa honen bidegabekeria ikaragarria salatzen, jasotzen ari garen elkartasun guztia antolatzeko eta epaiketa honen oinarrian dagoen preso eta erbesteratuen egoera konpontzea aldarrikatzeko, adierazi dute ohar batean. "Hainbat ekinbide ditugu esku artean, eta ekainaren 1ean Donostian egingo dugun agerraldian emango ditugu xehetasun guztiak".





Jose Gaztañaga Ugarte | Uraren indarraz biziz

Laurogeita piko urteko loiztar irribarretsua garaua ehotzen eman du bizitza Goienengo errotan, orain dela 15 urte arte. Auzotarrek Pione bezala ezagutzen dute etxe-erota, baina antzinako idatzi batzuek Aurtenerrota eta Goioerota bezala identifikatu zuten Joserren familiarena. Etxe azpitik igarotzen den urak turbina eragin, eta errotak garaua ehotzen zuen. Bertan jaio zen loiztarra eta harrezkero bertan bizi da. Aitak aitari eman zion erreleboa, eta horrek, Joseri. Gaztañaga familiak etekin ona ateratzen dio uraren indarrari.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Lehen ez zan errotarik inguruan falta
Baina murriztuz doa errotari mapa.
Gure iraganaren erakusle da ta segidu dagiala errotak bueltaka!

Itallen Bertso Eskola

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea: 9.00-19.00
Laburuntza: 8.00-13.30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

BIDE-GORRI
CAFE-BAR

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

BC Fun Fitness GYM

EKIPAMENDU BERRIA

Segimendu pertsonalizatua

Zamudio (IAT ondoan)
Prezio bereziak, talde eta enpresentzat

Jarraitu

Ugaldeguren II Industrialdea, partzela 9, nabe 3
628836753 - 944520815 gymtxorierni@gmail.com

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarari ziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren Elkarte

Lan eta bizi euskaraz

"Suak liluratu egiten gaitu"



DIABLES VORAMAR

Aurten Derioko jai-batzordeak proposamen berezi bat egin du, Diablos Voramar talde kataluniarraren eskutik: sua, petardoak eta danborren doinuak uztartzen dituen kalejira. Euskal Herrian ezagunak dira Deabru Beltzak taldeak egiten dituen ikuskizunak, baina Katalunian sua ezaggarri kultural bereizgarrietako bat da.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Diablos Voramar

"Taldekako izen osoa hau da: Serraloko Colla Diablos Voramar-Tarragonako VÍbria, baina, hura laburbiltzeko, Diablos Voramar esaten dugu", azaldu digu Ricard Virgili elkartearen zuzendaritza-batzordeko kideak. Egia esan, izenak taldekako atal biak aipatzen ditu. "Batetik, deabruak ditugu, Derion egon direnak. Ikuskizunetan 45-60 lagun hartzen dute parte: 18 deabru, deabru emea, Lucifer, zuzendari bi, pirotekniako arduradunak, 15 danbor-jole, 10 lagun materiala eramateko, erizaina eta argazkilaria. Taldekako beste atala, *víbria*, dragoi emea da. Dragoi horiek Tarragonako katedraleko zutabeetako kapituletan daude eta Kataluniako pertsonaia mitologikoak dira. *Víbria* 80 kiloko egitura bat da, buruhandi antzeko bat, eta berak botatzen ditu petardoak".

Derioko Udalak Kataluniako folkloreaken zati bat ekarri nahi izan zuen he-

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HABAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskeirik asko
etortzeagaitik



rrira, eta hango talde batekin jarri ziren harremanetan, ikuskizuna Derioko jaietan aurkezteko. "Udalak beste talde bati deitu zion, baina haiek gu baino txikiagoak dira eta ezin izan ziren etorri. Talde horrek guri egin zigun Euskal Herrira etortzeko proposamena eta guk pozarren onartu genuen. Izan ere, gure zaletasuna, gure kultura, batez ere Kataluniatik kanpo eramatea oso polita da. Taldeak datorren urtean beteko ditu 30 urte eta ibilbide honetan deabruak hainbat lekutan ibiliak dira: Mallorca, Aragoi, Andorra, Peñíscola, Lisboa, Frantzia...".

Diablos taldekoek primeran pasatzen dute ikuskizunak egiten eta horretarako gogor egiten dute lan. "Ordu asko eskaintzen dizkiogu taldeari eta inork ez du sosisik irabazten. Irabazten dugun diru guztia ikuskizunean bertan inbertitzen dugu. Eta ikuskizun ederra egiteko baldintza duinik ez badago, ez dugu saiorik egiten". Sua da Diablos taldeko saioen protagonista eta

sua, zelan ez, izugarri gustatzen zaie Tarragonako lagunei. "Suak liluratu egiten gaitu. Ikuskizunak uda aldean egiten ditugu, ekainetik irailera bitartean, baina neguan beste talderen batek saioa egiten badu, gu haragoaz, bolbora eta suaren premia dugulako. Bolbora usaindu behar dugu (kar, kar)".

Horrelako ikuskizunak ezagutzen ez dituztenenentzako pentsa dezakete saio arriskuak direla, baina Virgilik seguruak direla berretsi du. "Suaren kultura lantzen eta gozatzen dugu, eta ahal dugunean hura zabaldu egiten dugu. Esate baterako, Tarragonan, hitzaldiak ematen ditugu bolbora eta petardoak-eta behar bezala lantzeko: zelan batu petardoak, zer jantzi, publikoa erretzen bada zer egin... Horren haritik, suzko kalejiretan murgiltzeko gonbita egiten diegu ikusleei. Gure saioa zuzenean ikustea ikusgarria da, baina bertan parte-hartzea askoz dibertigarriagoa da. Hala ere, ikusleren batek kalejiran parte hartu nahi ez

badu, ez da ezer gertatzen. Era batean edo bestean, segurua da".

Auzo arrantzalea

Taldea 1990ean sortu zen Tarragonako Serrallo auzoan. "Gazte batzuk batu ziren Aste Santuan danborra jotzeko, Karmen birjinen pausoaren atzean. Miguel Tirado eta Manuel Albiol izan ziren sortzaileetako batzuk. Miguel Aragoikoa da eta Manuel Peñíscolakoa, eta nork bere herriko tradizioa ekarri zuen taldera, hau da, danborrak eta petardoak uztartu zituzten". 1993an, taldea handiago egin zen eta suzko piztia, *vibria*, sortu zuten; eta 2007an, umeentzako *vibria*. Gaur egun, 130 lagunek osatzen dute taldea: 40 ume, 12 urte baino gazteagoak; eta 90 inguru 16 urte baino gehiagokoak.

Taldea arrantzaleen auzo batean sortu zuten eta hori harrotasunez erakusten dute, esate baterako, janzkeran. "Antzinako arrantzaleen antzeko zirak janzten ditugu ikuskizunetan. Gainera, bakoitzak mediterraneoko arrain baten marrazkia daramagu bizkarrean". Elkartea zaletasuna lantzeko esparrua baino askoz gehiago da, taldeki gehienak senideak eta lagunak baitira. "Ni hasi nintzen, anaia sortzaileetako bat izan zelako. Anaia gazteagoa eta ilobak ere badaude taldean. Nire lagunak % 80 taldekoak dira. Ez da zaletasuna bakarrik, gure bizitza baizik".

*"Gure zaletasuna,
gure kultura, batez
ere Kataluniatik
kanpo eramatea
oso polita da"*

*"Gure saioa zuzenean
ikustea ikusgarria da,
baina bertan parte-
hartzea askoz
dibertigarriagoa da"*

Hori dela eta, Mankomunitateak Mugi Txorierri programa sortu zuen. Horren helburu nagusia da eskualdeko biztanleen artean ariketa fisikoa sustatzea eta sedentarismoa murriztea. Programan Mankomunitatea osatzen duten hainbat agente komunitariok hartzen dute parte, Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko eta Osakidetzako langileekin batera; eta horrez gain, Mugimenteko teknikariek ere laguntzen dute.

Programaren lehen zatian, agenteek lan-lerroak proposatu zituzten, baita helburu batzuk zehaztu ere. Ondoren, pazienteak Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzura bideratu zituzten, aurrez ezarritako betekizunak betetzen zituzten pertsonak aukeratu eta gero. Hirurogeita sei parte-hartzaile dira guztira, gehienak gizonak (36), eta inplikazio handia erakutsi dute. Zerbitzura bideratzen diren pazienteen ezaugarriak honako hauek dira: sindrome metabolikoa pairatzen duena (hipertentsioa; glukosa maila altuak, odolean; triglizeridoen maila altuak eta HDL maila baxuak, odolean; eta gantz maila altuak, gerriaren inguruan); hezur eta artikulazioetako arazoak dituen,

*Parte-hartzaileen
esanetan, bizitasun
handiagoa dute
eta bizi-kalitatea
irabazi dute*

Mugi Txorierrik 66 pertsona egoneko bizimodua alde

Txorierriko biztanleen % 38k ariketa fisikoa astean behin edo gutxiagotan egiten du. Duela gutxi, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak diagnostiko bat egin du Adikzioei eta Osasuna Sustatzeari buruzko 2019-2024 aldirako Plana gauzatzeko, eta datua diagnostiko horretan jaso da. Planaren arabera, "datu kezagarria da, eta gure udalerrietako biztanleen osasunarekin zerikusia duten agente guztien erantzuna behar da".



Kolore anitzeko Txorierri

Urtero bezala, Txorierriko Mankomunitateak LGBT+ fobiaren aurkako lanekarekin jarraitzeko konpromisoa berretsi du. Horren haritik, hainbat tailer antolatu ditugu udal gazteguneetan, sexu eta genero aniztasuna bultzatzeko eta maskulinitate berriez hausnartzeko.

1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik ezabatu izana lorpen handia izan zen giza eskubideen alde; geroztik, maiatzaren 17a gure agendako egun garrantzitsua bihurtu da: homofobia, lesbofobia eta transfo-

biaren aurkako eguna, hain zuzen ere. Horrekin batera, beste hainbat aurrerapauso ikusi ditugu, esaterako, transexualitatea ere zerrenda hartatik kentzea. Gure egunerokoan, ordea, ohikoegiak dira oraindik *bullying* kasuak eta gorroto delituak. LGBT+ pertsonen eskubideen aldeko lanetari eustek gaurkotasan handiko gaia izaten jarraitzen du, pertsona ororen askatasuna eta eskubideak bermatzeko.

Txorierriko Berdintasun Zerbitzuak berretsi egiten ditu konpromiso horiek, eta pertsona horien guztien eskubideak defendatzeko deia egiten die herritarrei.





ri lagundu die batera uzten

ariketa fisiko gutxi egitearen ondorioz; aurretik adierazitako sindromea sufritzeko aukera handiak dituztenak, beren bizi-modua aldatzen ez bada (sedentarismoa); eta operazio zehatz batzuen ondorioz (belauna, aldaka, sorbalda) bizimodu sedentarioa dutenak eta estres, antsietate eta beheraldi handia dutenak.

Pertsona batzuen kasuan, jarduera fisikoarekiko atxikimendua lortu da, ariketak parte-hartzaile horiei ekarri dizkien onurak direla eta. Hasiera batean, egunean 1.500-2.000 pauso baino gehiago ematen ez zituzten pertsonak hiru hilabeteren buruan, kasu askotan, zifra hori bikoiztu lortu dute, eta baita hirukoiztea ere, 7.500-8.000 pausotara iritsita. Eta paziente gehienek proposatutako jarduera fisiko aerobikoan egunerokoan indar-ariketak ere sartzea lortu da.

Programaren xede nagusia da herri-tarrak kontzientziatzea jarduera fisikoak duen garrantziari buruz, baita horri merezi duen balioa ematea ere. Eta, momentuz, bide onetik goaz. Parte-hartzaileetako batzuek adierazi dute "jarduera fisikoa egiten hasteari esker, bizitasun handiagoa" sentitzen dutela, "bizi-kalitatea irabazi" egin dutela, edo "jarduera fisikoa erabili" egiten dutela "eguneroko errutinaren arazoei ihes egiteko bide gisa".



Tabakorik gabeko Mundu Eguna

Erretzeari uzteko aukera bikaina

BIZI TABAKORIK GABE



Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), maiatzaren 31n Tabakorik gabeko Mundu Eguna antolatzen du urtero. Egun horretan kontzientziatu nahi da tabakoaren kontsumoaren eta besteek erretzen duten tabakoaren kea arnastearen ondorio kaltegarri eta hilgarriari buruz. Aukera ona da ohitura kaltegarri hori uzteko, urtero minbizia eta bestelako gaixotasun kardiobaskularrak sortzen baititu.

2018ko erdialdean, 12 eta 21 urte arteko Txorierriko gazteei (inkestatuen % 80 13-17 urte bitartekoak ziren) eginitako inkesta batek erakusten duenez, itaunduen % 75ek ez du inoiz tabakorik erre; % 16,1ek azken hilabetearen erre du; eta % 9,4k egunero erretzen du. Ohitura 15-16 urteetatik aurrera areagotzen bada ere, eta eguneroko kontsumoa ere kasu askotan ohiko bihurtu arren, Txorierriko gazteen % 90ek baino gehiagok onartzen du zigarroak noizean behin nahiz ohikotasunez kontsumitzeak dituen arriskuak ezagutzen dituela, hein batean eskualdean gauzatzen diren kontzientziazio-kanpainei esker.

Datuek erakusten duten moduan, hemezortzi urtetik gorako herritarren artean orokorra da erretzaile-kopurua

azken urteotan asko murriztu den ustea. Helduen artean gero eta jende gehiagok uzten dio erretzeari, eta, adituen esanetan, "oso berri ona" da hori. Horrez gain, kontzientziazio handiagoa dago gizartean tabakoak pertsonen osasunean dituen ondorio kaltegarriari buruz, eta hori legerian egindako azken aldaketei esker, ostalaritza-lokaletan tabakoaren kontsumoa debekatzeari esker eta hartutako antzeko neurriei esker izan daiteke.

Txorierriin -Derion, zehazki- tabakoa erretzeari uzteko tratamenduak gauzatu ahal izateko ziurtagiria duten Euskadiko zazpi farmazietako bat dago. Bertan, 340 pertsonak baino gehiagok hasi dute erretzeari uzteko tratamendua, eta arrakastaportzentaje oso altua izan da: bakarrik 20 pertsonak ekin diote berriro erretzeari.

Adituek erretzeari uztearen ondoriozko antsietatea kontrolatzeko ematen dituzten aholkuen artean hauek daude: erlaxazio-ariketak egitea (sakon arnastu, birrikak airez bete eta segundo batzuetan hor eustea); minutu erdiz erlojuari begiratzea, gogoa desagertzen joan daitezten; eta, batez ere, ohitura uzteko arrazoiak gogora ekartzea, horrek indarra emango baitigu. Halaber, gogorarazten dute lehen uneetan, umore txarra, kontzentratzeko arazoak, idorreria, logalea edo loezina izatea eta jangura areagotzea normala dela. Hori guztia desintoxikazio eta ohitura uzteko prozesuaren ondorioa da. Gainera, gogorarazi behar da eskualdeko osasun zentroetan erretzeari uzteko baliabideak eskaintzen direla.

*Tabakoa erretzeari uzteko
tratamenduak egin
ahal izateko ziurtagiria
duten Euskadiko
zazpi farmazietako
bat Derion dago*

Musika eta teknologia, eskutik

t: Itxaso Marina Ondarroat

Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak "Erronka bat Parkearentzat" lehiaketa antolatzen du urtero, eta ideia berritzaile onenak saritzen ditu. "Parkea Musik Fest" egitasmoak lehiaketa irabazi, eta aurten hirugarren aldiz egingo da. "Helduak dira, modu ludikoan, jendeak elkar ezagutzea sustatzea eta bakoitzak egiten duena elkarbanatzea. Era berean, adierazi nahi dugu artea eta kultura eta zientzia eta teknologia ez direla antagonistak, baizik eta dena kultura dela", azaldu du Xabier Diaz Silvestrek. Hori Bizkaiko Zientzia eta Teknologiaren Parkeko Lankidetzak eta Zerbitzuen arduraduna da.

Lerro hauek idatzi orduko, jaialdian hiru parkeetako 17 musika taldek emanda zuten izena. Agertokian ibili ahal izateko baldintza bakarra dago: gutxienez taldekideetako batek Euskadiko hiru parke teknologikoetako bateko langilea izan

*Festibala arratsaldean
izango da eta 10
taldek eskainiko
dute kontzertua*

behar du. Aurreko edizioetan, guztira 17 musika taldek egin dute bat egitasmoarekin –aurten beste–, eta, gainera, aipatu beharra dago talde horietako batzuk jaialdirako apropos sortu zirela; hau da, parkeetako langileak batu –bakoitzak musika-tresna bat jotzen zuela–, eta taldea osatu zuten.

"Parkea Music Fest" festibala ekainaren 7an, barikuan, izango da Baserri Antzokian. Aurreikuspenaren arabera, kontzertuak 14:30ean hasi, eguerdian, eta 20:30ean amaituko dira, iluntzean. Agertoki bi ipiniko dira –bata, Baserri Antzokiaren kanpoaldean; eta bestea, barrualdean– eta talde bakoitzak 20 minutuko saioa eskainiko du. Hainbat musika estilotako taldeak dira, hala nola hard rocka eta popa, eta gehienak talde amateurrak dira; hala ere, diskoa grabatu dutenak ere badaude, esaterako, Rojo Nieve taldea.

Ekainaren 7an, "Parkea Musik Fest" jaialdia egingo da Txorierriko Baserri Antzokian, Derion. Egitasmoa Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak antolatu du, eta bertan 10 musika taldek hartuko dute parte. Jaialdira edonor hurbildu daiteke musikaz goatzera. Jatekoak, edaria eta zozketak ere egongo dira.



Antolatzaileek bost euroko bonuak ipiniko dituzte salgai eta prezioaren barruan hiru txartel egongo dira: bi, edatekoa hartzeko; eta bestea, jatekoa hartzeko. Jatekoari dagokionez, zenbait aukera izango dira, adibidez, taloa txorizoarekin. Bestalde, txaranga batek girotuko du jaialdiaren hasiera, eta ahalegina egingo da umeentzako zerbait ere egoteko. Aurkezlea Iker Villa Revolta Permanent taldearen abeslaria ibiliko da.

Elkarlanean

Jaialdira parkeetako langileak ez ezik, edozein herritar ere joan daiteke. "Parkean dauden enpresen eta pertsonen zerbitzura gaude, baina hori baino lehen, gizarte osoaren zerbitzura. Txorierrin gaude eta, beraz, oso harreman zuzena eduki behar dugu bertako erakunde, elkarte, herritar eta eragileekin; eta gure ekitaldiek ere

oso zabalak izan behar dute". Lehenengo aldia da festibala Bizkaian egiten dena, eta antolatzaileak gogotsu dabilta erronkari heltzen. "Erantzuna ona izaten saiatu behar dugu, eta horretarako, ditugun birtuteak ipini". Diazek bereziki azpimarratu du lotura egon behar dela teknologiaren eta kulturaren artean. "Zientzia eta teknologia ez dira bakarrik banaka batzuentzako gauza; gizarte osoaren zatia dira. Garena eraikitzeko, kultura, artea, hezkuntza... derrigorrezkoak diren heinean, zientzia eta teknologia ere badira derrigorrezkoak. Arlo horiek guztiek elkarlanean aritu behar dute, eta Baserri Antzokia, kultura azpiegitura dena, Parkean bertan dago; ez da kasualitatea. Parkea denon zerbitzura dago, eta honen moduko ekitaldietan hazia ereiten da". Zientzia eta Teknologiaren Parkean musika entzun dadila, beraz.

Boto-ontziekin hitzordua

Espainiako Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan ajea oraindik pasatu ez dela, maiatzaren 26an beste hitzordu bat dugu boto-ontziekin. Euskaldunok hiru boto eman beharko ditugu: bat, udal hauteskundeetarako; beste bat, foru hauteskundeetarako; eta azkena, Europako hauteskundeetarako. Txorierrin, 16.785 lagunek dute botoa emateko eskubidea udal hauteskundeetan; eta Erandion, 19.380 lagunek. Hurrengo orrialdeotan, Txorierriko EAJko eta EH Bilduko alkategaiek aurkeztuko dute zeintzuk diren beren herrirako datozen lau urteetarako dituzten asmoen ildo nagusiak.



“2015ean hasitako bidea finkatuko dugu, Deriok aurrera jarrai dezan”

ESTHER APRAIZ FERNÁNDEZ DE LA PEÑA | Derioko EAJko alkategia

Zeintzuk izan dira legealdi honetako ekintza garrantzitsuenak?

Euskal Herria kalearen berrurbanizazioa garrantzitsua izan da. Udalerriaren erdiguneko kaleetako bat da, eta obrek harrera ona izan dute; are gehiago, esango nuke egunero Deriora lanera etortzen diren pertsonentzat positiboa izan dela. Gertutasunezko hiri-espazio seguru eta habitagarria sortu dugu, non oinezkoen bideei lehentasuna ematen zaien. Argiztapena ere hobetu da LED motako argi publikoen bidez.

Martxan jarri dituzuen proiektu askotan herritarren parte-hartzea funtsezkoa izan da, ezta?

Bai, duela lau urte gertatusanean eta entzunaldi aktiboan oinarritutako politikak egiteko konpromisoa hartu genuen. Eta hori egin dugu. Udaletxeko ateak irekita egon dira beti herritarrentzat. Foroak antolatutako ditugu, hainbat kolektiborekin, haurrentzako jolas-eremuekin, adineko pertsonekin eta gazteekin lotutako proposamenak partekatzeak.

Esther Apraiz Fernández de la Peña Zuzenbide Juridiko-Ekonomikoan lizentziatua da, eta 43 urte ditu. Azken lau urteotan Derioko alkatea izan da, eta 2011-2015 legealdian udaleko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena eta Hezkuntza zinegotzia izan zen.

Ezkonduta dago, eta 12 urteko mutiko baten eta 10 urteko neskato baten ama da. Maite du familiarekin Derio herria gozatzea. “Herri bizia da, dinamikoa, eta elkarleen sare parte-hartzailea dauka”, azpimarratu du. Oso kirolzale eta irakurzalea da.

Parte-hartze politika horri eustea pentsatzen duzu datorren legealdiari begira?

Inongo zalantzarik gabe. Parte-hartzearen aldeko apustua egin dugu gure udalerria eraikitzeak tresna moduan. Izan ere, gure bizilagunek datozen egunetan jasoko dituzten hauteskunde-programak

diseinatzerakoan derioztarren proposamenak hartu dira kontuan.

Proiektuen baten falta nabaritzen al duzu?

Azken zortzi urteetan, Derioko biztanleriak % 17ko igoera izan du eta ekipamendu batzuk behar berrietara egokitu behar ditugu. Duela bi urte 300 metro karratu berri eraiki genituen kiroldegian, solairuarte bat sortu baikenuen. Horri esker, gimnasioa birkokatu eta ikastaro eta zerbitzuen eskaintza zabaldu egin ahal izan dira. Ludoteka-, gazteleku- eta ludogazte-zerbitzuen eskariak gora egin du, eta, igoera horri erantzuteko, Larrabarri baserriko instalazioak zabalduko ditugu, baita zerbitzuak berrantolatu ere.

Zeintzuk dira proposamen nagusiak hurrengo urteetarako?

Unbe kalea berrurbanizatzea, argiztapena LED teknologiarekin ordezkatzea eta Larranbarri baserria zabaltzea. Horrekin batera, egun dauden instalazioen aprobetxamendua ere hobetu nahi dugu: horretarako, udal kiroldegia alboa kokatutako kirol-pista estaliko dugu. Horrela, asteartetan antolatzen den azoka gune estali horretara eramango dugu.

Nolakoak dira sentsazioak hauteskundera begira?

Ilusioz, legealdi honetan 2015ean hasi genuen bidea finkatu nahi dugulako, eta erantzukizunez, Derioko etorkizuna eraikitzen jarraitu nahi dugulako. Zerrenda indartsu eta fidagarria aurkeztu dugu, esperientzia eta gaztetasuna bateratzen dituen, eta batez ere langilea. Eman dugun hitza bete dugu, eta berriro beteko dugu.

“Zorroztasunez eta eraginkortasunez kudeatzen jarraituko dugu, herritar guztiekin lankidetzan”



"Herritarren parte hartzearekin Derio bizigarriagoa lortuko dugu"

ANE ABAUNZA MARTINEZ | Derioko EH Bilduko alkategaia



"Udalaren kudeaketa gardenagoa izatea nahi dugu, eta orain arteko modu autoritario eta argudio gabekoa desegitea"

Zergatik onartu zenuen alkategai izatea? Zergatik eman duzu pausoa?

EH Bildun militante guztien konpromisoa da udalerako hautagaien zerrenda on bat egitea. Horregatik, guztion artean zabaldu zen zerrendan joateko aukera. Lan egiteko aukera eta konpromisoa genuenok baiezkua eman genuen. Alkategai izatea edo herri ekimenetan lan egitea nire herriarekiko konpromisoa da, eta nire kideen babesa dudana bitartean ahalegin handiena egingo dut.

Zeintzuk dira hurrengo lau urteetarako erronka nagusiak?

Gure helburua da udalean benetako parte hartzea lortzea, aurrekontuetan, kulturen, jaietan... Era berean, udalaren kudeaketa gardenagoa izatea nahi dugu, eta orain arte agintariek izan duten lan egiteko modu autoritario eta argudio gabekoa desegitea.

Derio nabarmen hazi da azken urteotan, baina zerbitzu publikoak era berean hazi dira?

Aurreko legealdietatik dator gaia, eta eutsiezin bihurtzen ari da. Eskolan eta

1969an jaio zen Gernikan, baina 25 urte darama Derion bizitzen. Biologia zientzietan lizentziatua da, eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea da 20 urtetik hona. Ez dauka esperientziarik erakundeetan; hala ere, bai herrigintzan. Euskara eta euskal kulturaren aldeko militantea da eta gaztetatik dabil herrigintzan militatzen. Bi seme-ama da, eta, senide bezala, dispertsio politikoa lehen eskutik ezagutzen du. Aurtengo hauteskundeei begira proposatu zitzaion Derion EH Bilduko alkategai izatea, eta ilusioz onartu zuen konpromiso berri honetan inplikatzeko.

institutuan barrakoiak erabiltzeak gure seme-alaben hezkuntzaren kalitatea kaltetzen du. Eskolako beharrei aurre egin behar zaie albait arinen. Anbulatorioan ere lehen arretarako zerbitzu azkarragoa beharko genuke. Honelako adibideek

argi uzten dute zerbitzu publikoak gehitu behar direla, eta ez etxebizitza gehiago eraiki: lehenago derioztarren beharriak aztertu behar dira. Adibidez, Nagusien Etxe berria eraiki beharrean, dagoena legeztatu eta gure herriko nagusien beharretara egokitu, edo gazteei espazioak eman autogestiorako. Enpresa eraikitzaileek erraztasun guztiak izan dituzte, baina herritarrek egindako hainbat eskaera, sinadura bilketa eta abarrei muzin egin zaie.

Zer neurri proposatzen du EH Bilduk Derion euskara biziberritzeko?

Batetik, euskaltegiaren arabera diskriminaziorik ez egotea, eta epe ertainean ikastea doakoa izatea; bestetik, Eusko Jaurlaritzaren gomendioei jarraituta, Deriok 5.000 biztanle baino gehiago duenez, euskara zerbitzu propioa izatea. Derioztarre erantzun bikaina eman dute Euskaraldian, Berbalagunean... Orain erakundeek pareko erantzuna eman, eta euskararen erabilera lehentasun bihurtu behar dute.

Hamalau pertsonako lan-taldea aurkeztu du EH Bilduk Derion. Zer nabarmenduko zenuke?

Taldea herrigintzan gabiltzan zazpi emakumek eta zazpi gizonek osatzen dugu, euskara, feminismoa, guraso elkarre eta abarretan ibilitakoak. Juan, Jatorra, M. Karmen, Txus eta Arantza zinegotzi ibili izan dira eta horrek esperientzia handia ematen digu. Baina gure taldea 14 horiek baino askoz gehiago da: aniztasun handikoa da, hainbat arlotako lagunek osatutakoa eta bakoitzak duen onena emateko prest gaude.

“Larrabetzun, larrabetzuarrak protagonistak izango dira”

IÑIGO GAZTELU BILBAO | Larrabetzuko EH Bilduko alkategaia

Zeintzuk dira Larrabetzuko EH Bilduk datozen lau urteei begira aurrera eramango dituen ildo nagusiak?

Herritarrek udal kudeaketaren protagonistak izaten segituko dute. Azken zortzi urteotan bezalaxe, kultur, kirol, gazte eta emakume taldeek, herritarrekin batera, gure udal jardueraren ardatza izaten jarraituko dute. Elkartek protagonista izatea nahi badugu, argi daukagu finantziario-iturriak izan behar dituztela: datozen lau urteotan herriko elkarte eta ekimenetarako dirua % 20 igotzea proposatzen dugu. Bestalde, 1.950.000 € inbertituko ditugu herriko azpiegitura eta proiektu berrietan. Inbertsioaren helburua azpiegitura estrategikoak hobetzea da. Eta azkenik, memoria historikoa berreskuratzea, hori gure herriko historiarekin dugun zorra da eta.

EH Bilduk programa aurkeztu du Larrabetzun, eta bertan 50 proposamen egin dituzue. Adibideren bat emango duzu?

Herri programa egiteko, parte-hartzea bultzatu dugu, eta, ondorioz, esan dezakegu gure programa herritarrek egindako programa dela. Hogeita bost proposamen

zehatz egin dira arlo hauetan: kultura, euskara, gazteria, parekidetasuna, oroi-men historikoa eta hezkuntza. Era berean, aurrekontua eta proposamenak aurkeztu dira herriko azpiegitura estrategikoak hobetzeko: eskolako berokuntza hobetzea, bertako leiho guztiak aldatzea eta txinbo-gunea estaltzea; frontoian berokuntza ipintzea eta gimnasioa hobetzea; eta udaletxea guztiz konpontzea, herritarrei zerbitzu hobea emateko eta lekua hobeto aprobetxatzeko. Etxebizitzaren arazoari erantzuna ematea ere lehentasuna da: HAPOn aurreikusten diren babes publikoko 34 etxebizitzaren erabilera zehaztuko dugu, eta etxebizitza alokatzen laguntzeko ordenantza jarriko dugu martxan.

Zer esan ahal diguzu zerrendari buruz?

2015ekoaren aldean, zerrenda gaztea da, eta 14 pertsonetatik 10 emakumezkoak dira, hau da, % 71. Gure herrian, emakumeak dira elkarleen protagonistak eta hori gure zerrendan ere islatzen da.

“Gogoia eta konpromiso ikaragarria dugu herriaren alde lan egiteko”

Beste lagun bat eta biok berriro gaude zerrendan, eta, zer esanik ez, eskarmentu handia dugu. Baina batez ere nabarmenduko nuke denok herriko hainbat elkartetan lan egiten dugula, eta gogoia eta konpromiso ikaragarria dugula herriaren alde lan egiteko.

Karguaz jabetu, eta zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Azkenengo lau urteetan bezala, herritar guztien alde lan egiteko konpromisoa berretsiko dut, eta konpromiso bera eskatuko diet udala osatzen duten zinegotzi guztiei. Izan ere, udaletxeak herriko etxea izan behar du.

Iñigo Gaztelu Bilbao Larrabetzun jaio zen 1968an. Derioko Seminarioan eta Institutuan ikasi zuen, eta Eroski kooperatibaren bazkidea da 1989tik hona. 2004an eszedentzia hartu zuen eta kudeatzaile-lanak egiten ibili zen GARA egunkarian. Gaztetik dabil politikan eta herriko hainbat elkartetan hartzen du parte. 2015etik Larrabetzuko alkatea da, eta aurtengo hauteskundeetan ere alkategaia da. “Azken legegintzaldian ekimen, proiektu, inbertsio... asko jarri ditugu martxan; horiek hurrengo legegintzaldian ere izan beharko dute jarraipena. Era berean, auzokideek euren ideiak, kexak eta proposamenak jakinarazten dizkigute, eta, hori dela eta, beste lau urtetan segitzeko gogotsu nabil”.



“Herritik sortutako programa dogu, beti be herritarrak erdigunean jarrita”

MIGUEL ANGEL GAZTELU BARRENA | Larrabetzuko EAJko alkategia

Zure taldeak zer emon leikio Larrabetzuri?

Larrabetzu herri anitza da, eta apaltasunez uste dot EAJ-PNV dala aniztasun horri ondoen erantzun leikiona eta ondoen ordezkatzuko dauana. Pertsona ireki eta konprometituak osatzen dabe taldea, ilusinoz eta arduraz Larrabetzuren alde lan egiteko konpromisoa daukienak. Gure apustua: kudeaketa eraginkorra, lana, entzuten jakitea eta errespetua. Pertsonak dira gure ardura, inor baztertu barik, desbardin pentsetan badabe be; eurak izango dira gure lanaren ardatza.

Zein da gazteriari begira abiatuko dozuen lan-ildoak?

Euren alde egiten dogu, argi eta garbi. Gure gazteak herrian bizitzen jarraitzea gurako geunke, beraz, gobernatu genduan herrian babes ofizialeko etxebizitzak eraiki genduzan lez, etxebizitzen alokairua bultzatuko dogu, eta babes ofizialeko etxebizitzak eta enplegua. Nerabeen eskaerea be bete gurako geunke eta gaztegune bat egokitu eurentzako aproposak diran ekintza eta tailerrak; eta umeentzat, umeen jolas eremuren bat estalduko dogu, urte osoan euki deien non olgau.

Herritarren eskaerak beteteko, zer gehiago proposatuko zeunke?

Pertsonak eta euren ongizatea gure lanaren ardatza izango dira. Esateko eukiena entzun deutsegu eta segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko eskatu deuskue; arrapalak, beheraguneak eta espaloiak konpontzea; baita auzoetako argiztapena, asfaltatzea eta bideak garbitzea be. Gure kultur eta kirol eskaintza hobetu gurako geunke, padeleko eta skateko pistak eraikiz, eta gimnasioa goizero zabalduz. Ezin dira atzeratu udalategia barrizatze-lanak, bertan igongailua jarrita.

Ze kudeaketa eredu proposatzen dozue?

Kudeaketa arduratsua. Udalaz gaindikoa beste erakunde batzuek batera



*“Gure apustua:
kudeaketa
eraginkorra, lana,
entzuten jakitea
eta errespetua”*

lan egingo dogu, alferreko gastuak saihestuko doguz eta diru-iturri barriak bilatuko doguz inbertsinoak egiteko, baina udalaren diru-sarrerak tasa altuetan eta prezio publikoetan oinarritu barik. Herritarren parte-hartzea bultzatuko dogu, ahalik eta modurik anitz, plural, eta eraginkorren.

Miguel A. Gazteluk 57 urte daukaz. Filosofia eta Letretako lizentziadua da Deustuko Unibertsidadetik, eta Ikastetxeen Zuzendaritza Masterra egin dau Mondragon Unibertsidadean. Kirikiño Ikastolako irakaslea eta zuzendaria izan da, eta gaur egun Larrabetzuko zinegotzia eta Txorierriko Mankomunitadeko presidenteordea da.

Larrabetzu kohesionatuago eta toleranteago bategaz amets egiten dau, pertsonak begirunez hartzen dauzana eta bardintasuna bilatzen dauana; baita herri berdeago bategaz be, birziklatzen eta hondakinak bereizten dauzana; herri irisgarriagoa, garbia eta euskalduna, atzean inor izten ez dauana.

“Lezamar guztion ongizatea bilatzen duten gizarte-politikei eutsiko diegu”

JON ANDER AURREKOETXEA ARTETXE | Larrabetzuko EAJko alkategia

Zergatik aurkeztuko zara berriro Lezamako alkate izateko?

Duela lau urte 15 lagunok hasi genuen proiektua amaitzeko: oraindik zenbait gauza geratzen zaizkigu garatzeko, Lezama eta gure herritarren bizitza hobetzeko.

Zeintzuk izango dira zure taldeak datozen lau urteotan garatuko dituen ildo nagusiak?

Guztionez ongizatea bilatzen duten gizarte-politikei eustea. Euskararen erabilera lantzen eta bultzatzen jarraitzea.

*“Lana, lana eta lana.
Apaltasunez eta
zintzotasunez,
lezamar guztientzat
lan egingo dugu”*



Lan egitea, industria sektoreaz gain lehen sektoreak ere hazten jarrai dezan, azken urteetan bezala: Lezaman leku nahikoa dugu beharrezkoak diren bi sektore horiek elkarrekin bizi daitezen. Lezama lezamarrekin batera urbanistikoki garatzea, bizitzeko leku erakargarria izan dadin eta gure gazteek, euren familia osatzeko, Lezaman garatzeko gogoia izan dezaten, guk egin genuen bezala. Lezama ezagutzera ematen duten ekimenak garatzea: gure herria, gure produktuak, gure ekoizleak, gure tokiko merkataritza eta gure gastronomia. Udaletxearen beheko solairua berritzea, txikienek eta euren familiek edo elkarteek urte osoan espazio ludikoak izan ditzaten. Kirola sustatzea gazte eta helduen artean, gimnasio berriarekin, ikastaroekin eta oinez egiteko ibilbideekin. Umeentzako parke estalia egitea, eguraldi txarra egiten duenean ere umeek eta euren familiek erabil ahal izan dezaten. Ekimen hori neska-mutilekin batera garatzea, azken horiek Umeen Kontseiluan parte hartuz. Era berean, akordioak bilatzen jarraituko

dugu, udala osatzen duten talde politikoekin, BFArekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Eusko Trenbide Sarearekin edo beste erakunde batzuekin, betiere akordio horiek onuragarriak badira Lezamarentzat.

Jon Ander Aurrekoetxea elektrikaria da lanbidez eta Lezaman Txo ezinez eza egin dute. Bere ustez, Lezamako onena da “herritarren artean dagoen harremana. Herri txikia gara eta denok gara elkarren eza egin. Oso gustuko dut kalera irtetea eta herri-kideen izen eta abizenak eza egin”. Gaur egungo alkatea pozik dago bere lantaldeak 2015eko hauteskundeetara eraman zuen egitasmoaren betetze maila altuarekin, baina “Lezamarentzat hori baino gehiago nahi dugu, beste horrenbeste edo gehiago lan egiten jarraitu nahi dugu. Gure herri-kideek horixe merezi dutelako”, azpimarratu du.

Aurkeztu ondoan duzun lantaldea.

Hamabost lagunek osatzen dugun taldea gara, datozen lau urteotan Lezamaren eta lezamarren alde lan egiteko konpromisoa dugunok. Emakumeen eta gizonen talde bat gara, bizitza kalean egiten dugunak, herritarrekin harreman etengabea, euren kexa edo ekarpenen berri eman diezaguten. Oso ondo hartzen ditugu beti, horietatik asko ikasten delako. Prestakuntza eta ilusioa duen taldea gara, gaztetutakoa eta lan egiteko gogo handikoa.

Kargua berrestea lortzen baduzu, zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Hori gertatzeko, ezer baino lehen, lezamarrek berriro ere euren konfiantza eman beharko digute datozen lau urteetarako, baina horrela bada, lehenengo egunetik jarriko gara lanean gure herritarrekin. Azken lau urte hauetan egin dugun bezala, esateko dutena entzunez udaletxean, kalean, tabernan, dendan, mendian... leku guztiak dira onak. Lana, lana eta lana. Apaltasunez eta zintzotasunez lan egingo dugu lezamar guztientzat.

“Guztion artean Lezama hobetzera gatoz”

ALAITZ ARTETXE ORNES | Lezamako EH Bilduko alkategaia



Alaitz (Lezama, 1976) sare publiko irakaslea da. Lezamako eskolan ikasi zuen, eta orain bertako gurasoa da. Herrigintzan ibili da gaztetatik, hainbat elkartetako partaide aktibogisa, baita ezker abertzalean ere. “Sinetsita nago posible dela gauzak aldatzea, konpromisoa, ilusioa eta talde-lanaren bitartez”. Euskaldun, ezkertiar, abertzale eta feministatzat jotzen du bere burua: “Emakumeok espazioak irabazi behar ditugu. Baita erakundeetako aginte-postuetan ere”. Ondo eza gutzen du Lezamako Udala, azken lau urteotan bertan zinegotzi aritu da eta. Amatasuna, espazio pertsonala eta jarduera politikoa uztartzen irakatsi dio horrek.

Zein lehentasun ikusten duzue datozen urteetarako?

Azken urteotan, hainbat proposamen eta proiektu bultzatu ditugu udalean, herria hobetzeko: aurrekontu parte-hartzaileak, eskolako eta haur-eskolako beharriazane erantzutea, emakumeen kontseilua eratzea, udaletxearen beraren berrikuntza, egur eta landare banaketa... eta lanildo horri eutsi nahi diogu. Baina horren guztiaren gainetik, modu jasangarrian garatzeko plangintza urbanistikoa diseinatu behar du gure herriak behingoz. Izan ere, inposatu nahi izan diguten eredu birritan bota dute atzera epaileek, eta, beraz, hasiera-hasieratik ekin behako genioke plangintza berri bat prestatzeari. Eta denon artean, interes kolektiboaren alde eginez.

Beste proposamenik edo aipamenik?

Lezamarrok eskura izan behar ditugun zerbitzu publiko guztien kalitatearen alde lan egingo dugu: udalak eskaini behar dituenak ez ezik, beste erakunde batzuek eskaini beharrekoak ere. Merkataritza eta

“Lezaman lan egin eta bizi ahal izateko aukerak sustatzera gatoz, batez ere gazteentzat”

enpresa txikiak bultzatu nahi ditugu, baita lehenengo sektorea ere. Bestalde, harremana sendotu nahi dugu herriko elkarrekin, Lezamaren benetako altxorra dira eta. Haiekin batera, kultura, aisia eta kirol eskaintza askotarikoa antolatu nahi dugu, herriaren dibertsitatean eta berdintasunean oinarrituta. Berezik, sakon aztertu nahi dugu udal lokalei ematen zaien erabilpena eta ateratzen zaien etekina, egokitasuna, ordutegiak... Eskola ere aipatu beharra dago: daukan espazio mugatuari irtenbide bat eman behar zaio, gure seme-alabentzat kalitatezko herri eskola nahi dugulako. Azkenik, ezin da ahaztu euskararen erabilpen urria dela-eta dugun kezka handia. Euskararen egoera hobetzeko bitartekoak jarri behar ditugu,

eta konpromisoa hartzen dugu horretan eredu izateko.

Zer esango diguzu zerrendari buruz?

Zerrenda askotarikoa da, hamaika emakumez eta gizonez osaturik: udaletxearen funtzionamenduan eskarmentua dugunok eta arnasa berria ekarriko dutenak. Ezkertiar pentsaerako herritarren bilgunea gara. Konpromisoak hartzeko prest aurkezten dugu gure burua, gardentasunez, erakundeak herriaren zerbitzura jartzeko.

Karguaz jabetu eta zer egingo duzu lehenengo?

Lanean hasiko gara udalak dituen baliabideak herritarren beharrianetara lehenbailehen bideratzeko. Lezamar guztien iritziak kontuan hartuta, udalaren eguneroko kudeaketa hobetuko dugu; herritarren parte-hartzea indartu eta erraztu nahi dugu, udalbatzen ordutegiak aldatuz... Planifikazio urbanistikoari goitik beherako errepasoa eman behar zaio: Lezama benetan leku ederra da bizitzeko; gure ondarea zainduz hazteak eta zentzuz garatzeak ekarriko dizkigute etorkizuneko aukerak.

“Guztiok merezi dugun Loiu izan dezagun egingo dugu lan”

KOLDO URIZARBARRENA CASTELLOTE | Loiu EH Bilduko alkategaia



Zinegotzia izan zara Loiu Udalean azken lau urteotan. Nola baloratzten duzu egindako lana?

Gure balorazioa oso ona da. Akordioak egiteko dugun gaitasunari esker, gauza handiak lortu ditugu arlo sozialean. Adibidez, geuk lortu dugu lorezaintzarako azpikontratututako langileek lan-baldintza hobekitzeko, eta, bizikidetzari dagokionez, udalak aitortu du Loiu familia baten erakundearen aldetik inolako babesik jaso gabe, luzaro jasan duen sufrimendua. Bestalde, dinamizazioarako hainbat proposamenetan hartu dugu parte, eta ikasi dugu zein garrantzitsua den erakundearen lana. Baina batez ere loiotarren gertutasuna balioesten dut: guregana etorri dira laguntza eske, edo haiek lagundu digute guri proposamenak aurrera ateratzeko.

“Hiru lan-ardatz nagusi ditugu: arlo soziala, enplegua eta ahalik eta zerbitzurik onenak lortzea”

Nola egingo diozu aurre datorren legegaldiari?

Ilusio handiz. Gogotsu, ekarpenak egiteko, hobetzen jarraitzeko eta Loiu maite duen edozeinen kezka eta proposamenak entzuteko. Nire denbora librearen zati bat nahi dudana Loiu lortzeko eskaintzen jarraituko dut, guztiok merezi dugun Loiu izan dezagun. Lan eginez, bat eginda eta ilusioz lortu daiteke.

Zeintzuk izango dira Loiu EH Bilduren lan-ardatzak datozen lau urteotarako?

Hiru lan-ardatz nagusi ditugu: arlo soziala, enplegua eta ahalik eta zerbitzurik onenak lortzea. Horri lotuta, kezka sozialak jaso ditugu gure proposamenetan; esaterako, gizarte-alokairuko etxebizitzak, gure gazteek herritik alde egin behar ez izateko. Premiak dituzten pertsona, emakume eta gazteentzako lana sortzeko plana ere proposatu dugu, eta hori udalak berak kudeatuko du. Jakin badakigu udal altxortegia sasoian dagoela, eta, horregatik, gastu-gaitasunak oparotzea eta zentzuzkoa izan behar du, lehentasunak garbi izanda: beharra duenari laguntzea eta herria denontzat hobetzea, bereizketarik gabe.

Loiu semea (1970), Koldo lo-rezaina da, aita eta osabak bezala. Haurtzaroa Garone baserrian igaro zuen. Aitite Luis, Arana Bekoa baserrikoa, Burdinazko gerrikoaren ingeniaria izan zen. Telletxe baserrian bizi zen. Agirre lehendakaria bertan ezkutatu zen. Ama Arrigorriagakoa da, Arandia baserrikoa, eta han eman zituen uda asko, aitite Jorge eta amama Filomenarekin. Aititek *Egin* egunkaria sortzen lagundu zuen, eta berak eta anai-arrebek SESBera eta Mexikora alde egin behar izan zuten, Euskadiko Alderdi Komunistaren ki-deak ziren eta.

Miren Karega Loiu batzokiko sukaldaria izandakoak behin esan ziona ez du inoiz ahaztuko: “Orain, falangistak izan direnak ere afiliatzen dira gurean: batzuei edozer balio zaie; niri ez. Ez dut kantitatea nahi, kalitatea baizik”.

Nolako taldea osatu duzue zuen erronkari aurre egiteko?

Gure taldea pertsona konprometitu, prestatu eta bihurtunok osatzen dugu. Prest gaude asko emateko, musu-truk. Ez dugu ezer guretzat nahi, izan ere, gure us-tez, politika ez da etorkizunean lanpostu on bat lortzeko plataforma. Talde umila gara, loiotarrez edo sustraiak Loiu dituzten pertsonaz osatua, eta gure xede bakarra gure herria hobetzea da. Hainbat adinetako lagunak gara, askotariko pres-takuntza dugu eta Loiuarekin ditugun lotu-rak ere desberdinak dira. Unibertsitateko ikasleak gara, enpresariak, erretiratuak, funtzionarioak, landunak, baserritarrak... Desberdinak gara eta horrek aberastu egi-ten gaitu, egoera beraren aurrean gure ikuspegiak ezberdinak direlako. Badaki-gu elkar ulertzen, eta elkarlanean aritzen, guztion onura lortzeko. Enpatia batzen gaitu; horixe da gure bereizgarria.

"Aireportutik merezi ditugun diru-sarrerak izateko bidean gaude"

JOSU ANDONI BEGOÑA FERNANDEZ | Loiuko EAJko alkategaia

Nola aurkezten zara berriro alkatezara?

Egia esan, gogo eta ilusio handiarekin, bihotzean Loiu dudala. Ohore handia da zenbait proiektu gauzatzeko aukera izatea, gure udalerria hobetzeko, aurrera eramateko eta garatzeko.

Zein sentsazio duzu oraingo legealdi honetaz?

Gure jokaera elkarriketan eta akordioan oinarritu da beti. Adibide argiak ditugu: udal aurrekontuak eta etxebizitza berrietarako plana bezalako proiektu giltzarriak, aho batez onartu direnak. Hori izan da legealdi honetako ezaugarri komuna: udal oposizioaren babesa lortzea, bai EH Bildurena, bai PPrena.

Ehun eta laurogeita hamar ekintza ezberdin gauzatu dituzue!

Legealdiaren hasieran Agintaldiko Plana aurkeztu genuen, gaur egun % 92an bete duguna. Ekintza horietatik nabarmendu dezakegu garraio arloan zeuden eskakizun historikoak gauzatu izana: alde batetik, Larrondo auzoaren eta Loiuko herrigunearen arteko lotura zuzena; eta, bestetik, lotura EHUrekin, hau ere autobusez, gure gazteentzat.

Nola baloratzen duzu Etxebizitza Plan berria onartu ahal izana?

Oso balorazio positiboa egiten dut. PPK eta EH Bilduk EAJ-PNVk aurkeztutako etxebizitza berrietarako proiektua begi onez ikustea eta horren inguruan aldeko botoa eman izana egindako lanarekin pozik egoteko arrazoia da.

Hurrengo helburua udal igerilekuak eraikitzea da.

Eguneroko entzute eta hurbiltze etengabe horretan, herritarrek udal igerilekuak izateko ere eskatzen dute. Daukagun aukera aprobetxatu behar dugu gure herritarren alde.

Eta Loiuko Antzokia ere, kultura maite duten pertsonentzat.

Izan ere, Loiuk ez dauka leku jakinik hauek egiteko: ekitaldiak, zinema, antzerkia, musika... Hori dela-eta, uda honen os-



Josu Andoni Begoña 43 urte ditu eta Loiu bizi da. Magisteritza eta Zuzenbidea ikasi zituen. 2015ean Loiuko alkate izendatu zuten. Tarte libreetan hauek egitea atsegin du: familiarekin eta lagunekin egotea, kirola egitea, bateria jotzea eta batez ere auzokideekin egotea. Mendizale amorratua da eta urrian Hiru Handiak lasterketa amaitu zuen. Jarraitzaile asko ditu sare sozialetan. Bestalde, laster aita izango da eta erronka berriari ilusioz beteta helduko dio.

tean, Loiuko Antzokia eraikitzen hasiko gara.

Zure taldeak Larrondon zenbait jarduketa egitea aurreikusi ditu.

Auzoko zinegotzi bat izendatu genuen, herritarren kezak jasotzen dituen. EAJ-PNVk egunero ematen die arreta kezkei, eta, horren ondorioz, bost proiektu aurkeztu ditugu: herritarren arretarako bulegoa

"Eskakizun historikoak gauzatu ditugu, adibidez Larrondo eta herrigunea autobusez lotzea"

zabaltzea, umeentzako parkea estaltzea, belar artifizialeko zelaia egitea, herritarrei udal lokalei buruzko iritzia eskatzea eta txakurgune bat.

Aireportuak Loiuri zuzenean eragiten dion azpiegitura da.

Hori dela-eta, parte hartzen dutan Aire-Nabigaziori buruzko foro guztietan, Loiuko bizilagunen eskubide eta interesen aldeko defentsa irmoa egiten dut. Era beran, Loiuk aireportuaren esparrutik merezi dituen diru-sarrerak izateko bidean jarri gara. Loiu ere, herri gisa, irabazle aterako da.

“Sondikoztarren beharrei erantzuteko proposamena aurkezten dogu”

XABIER ZUBIAUR AGIRRE | Sondikako EAJko alkategaia

Zer balantze egiten dozu oraingo legealdiaren ganean?

Oso legealdi ona izan da. Uste dot erakutsi egin dogula Sondika martxan egon dala, herri hau bizia dala eta aurrera egiten daukela. Gure Lehentasun Planen % 83 bete dogu eta, ganera, azken urteotan geldituta egozan proiektu batzuk bultzatzea lortu izan dugu, besteak beste, eleiza ondoko orubea, Gorondagane eskolako teilatua edo Asua inguruan ibaia zabaltea.

Sondikako Aukera Lehentasun Plan-a betetze-maila handira heldu da.

Bai, hori oso garrantzitsua da guretzat. Uste dot Bizkaia osoan herri bakarra gara, edo apurretakoa gitxienez, herritarrei landu dituen proiektuen eta lanen berri emon deusena. Bakoitzaren betetze-maila azaltzen joan gara eta, ganera, aukera emon dogu proiektu bakoitzean parte hartzeko, proposamenak eginez eta bakoitzak bere erispideak azalduz. Eta holan egin dogu benetan sinesten dogulako.

Egin diran lan guztietatik, zein nabarmenduko zeunke?

Bi jarduera azpimarratuko neukez. Alde batetik, Gorondagane eskolako haur hezkuntzako eraikineko teilatua osorik konpondu dogu. Urteetan blokeatuta egon da, eta jolasgunean be estalkia amaituko dogu 2020an. Eta beste bat, zailantzarik barik, Joan Deuna auzoan egin diran hobekuntzak: aparkatzeko tokia % 11 handitu dogu eta LED argiteria jarri dogu. Herritar asko bizi dira bertan eta denda gehienak be han dagoz.

Hurrengo legealdira begira, zer proposatzen dozue?

Proposamen errealistea egin gura deutsegu Sondikako herritarrei. Baina ez hori bakarrik, proposamen hurbila egin gura dogu proiektu zehatzakaz, euren beharrei erantzuteko. Bide horretatik, LED argiteria herri osoan zabaldu gura dogu, umeentzako jolasgune bat estaliko dogu, gure kiroldegiei bultzada barria emongo deutsegu, eskolako patioak es-



Xabier Zubiaur 45 urte dauz, ez-konduta dago, bi alaba dauz eta industria ingeniaria da. Alkatetzarako hautagaiak lankide izan dauzan zinegotziak ekarri gura dauz gogora “horreek barik ezinezko izango litzateke Sondika deritxon proiektu hau aurrera eroatea. Lantaldea daukagu, proiektuak doguz, ideiak doguz eta, garrantzitsua dana, Sondika hobetzen jarraitzeko ilusinoa dogu”. Bere berbetan, “harrotasun osoz eta apaltasun osoz, herritarrei eskatu gura deusat gure lantaldean konfiantza jartzen jarrai dagiala, EAJ-PNVrengan konfiantza izan dagiala. Gu gara Sondika bultzatzeko bermea, danakaz eta danen zerbitzura gobernatzeko”.

talki bat izango dau, ikasteko gela egingo dogu eta Larrabarrenan komun publikoa jarriko dogu, bidegorri bat egingo dugu Lezamako bide zaharrean, gure merkataria babestuko doguz... eta abar luze bat. Ekimen asko dira, baina gure konpromi-

“Sondika munduko herririk onena da; sentimendu hau da gure herriaren alde egitera bultzatzen gaituena”

soa erabatekoa da eta Sondikak bere jarraipena eta bere proposamenak egiteko aukerea izango dau, orain arte moduan, Sondikako Aukeraren bidez.

Hauteskundeetan atarian gagoz, zeintzuk dira zure sentsazioak?

Harro sentitzen naz, harro Sondikagaz eta bere jendeagaz. Ezagutzen nabenez jakin dakite nagoen leku guztietan esaten dodala Sondika dala munduko herririk ederrena, onena. Sentimendu hau da gure herriaren alde egitera bultzatzen gaituena. Pasioa eta ilusino handia, hurrengo lau urteotan be, gure herrikideen laguntzeagaz, Sondika hobetzen jarraitu gura dogulako.

“Udalak herritar guztion etxea izan behar du”

KEPA KAREAGA GANBOA | Sondikako EH Bilduko alkategaia



Zer eramango du EH Bildu taldeak udalera?

Legealdi honetan jarrera eraikitzailea eta irekia izan dugu, eta bide horretan jarraituko dugu. Udala gardena izatea nahi dugu, EAJren inposiziorik gabe: epaitegira jo behar izan dugu hauteskundeetan lortutako ordezkartza Batzordeetan errespetatadin. Kalitateko zerbitzuak eta sondikoztarren interesak defendatzen dituen udala bultzatuko dugu.

Arazoak egon dira udal zerbitzu-ekin. Nola baloratzen duzue hori?

EAJk zerbitzu publikoen pribatizazioa bultzatu du, eta lan-prekarietatea administrazio publikora eraman du: lanuzteak, grebak, enpresei kalte-ordainak eta zerbitzuen etenaldiak jaso ditugu. Zerbitzu publikoen pribatizazioa ez da ez merkeagoa, ez hobea. Kalitateko zerbitzuak izateko, klausula sozialak sartuko ditugu udal kontratazioetan eta zerbitzu publikoak baliabide publikoekin eramango ditugu aurrera.

EAJk proposatutako HAPO berriaren kontra bozkatu zenuten.

Sondikaren atzean auzoak daude, herriarrak eta etxebizitzarik lortu ezin duten gazteak. HAPO horrek ez die haien beharrei erantzuten; Bilboko etxebizitza-beharrei erantzuteko egin dute. EH Bilduk beste proiektu bat du: parte-hartzearen bidez etorkizuneko Sondika denon artean eraiki.

Zer esango zenuke azken legealdia-ren lanari buruz?

Proposamen asko aurkeztu eta borrokatu ditugu: haur-eskola izatea; indarkeria matxistaren aurkako protokoloa lantzea; eskolako itoginak konpondu eta patioa estaltzea; zergetan hobariak ezartzea; Eusko-treneko tren-aldaketa kendu eta Lutxana-

“Parte-hartzearen bidez etorkizuneko Sondika eraikiko dugu denon artean”

Sondikoztarra, 1973an jaioa. UPV/EHUko langilea da 2001etik, eta gaur egun Bilboko Hezkuntza Fakultatean egiten du lan. Politikari dagokionez, Kepa EH Bilduko bozeramailea izan da udalean azken lau urteotan. Berriro ere konpromisoz, ilusioz, anbizioz eta indarrez heldu dio Sondikan EH Bilduko alkategaia izateko erronkari. Izan ere, bete-bete sinisten du gure herria eraldatzeko daukagun gaitasunean. Berdintasunean eta justizia sozialean oinarritutako gizartea eraikitzea du helburu. “Herritar guztien ongizateak instituzio guztien politika publikoen erdigunean ipini behar dugu, udalean ere bai”.

ko trena mantentzea; gaueko hegaldien kontra egin eta saien arazoa AENAK konpontzeko eskatzea, adibidez. Gogotsu egin dugu lan, eta emaitzak lortu ditugu.

Zer azpimarratuko zenuke zuen zerrendaren gainean?

Prozesu parte-hartzaile zabal baten ondorioa da. Zinegotzi izandako batzuk berriro aurkeztu gara, eta zerrenda lagun berriekin indartu dugu. Eskarmentua eta gogo handia dugu herriaren alde lan egiteko.

Proposamen zehatzak egin dituzue programan. Karguaz jabetu, eta zer egingo duzue?

Herri bizia eta kohesionatua nahi dugu. Besteak beste, hauek egingo ditugu horretarako: herritarrei hitza eman udalbatzarretan; aurrekontu parte-hartzaileak; langabetuentzako lan-poltsak; dendak eta industriaguneak sustatu; alokairu sozialeko etxebizitzaren politikak egin; eskola publikoa erdigunean jarri; politika feministak bultzatu; euskararen erabilera indartu; umeen jolas-parke estalia, komun publikoa eta ikasgela egin eta kalitateko zerbitzu publikoak bultzatu. Udala herriaren zerbitzura ipini, finean.

“Zamudiok adostutako erabaki zabalen eta etengabekoen emaitza izan behar du”

DEINE LARRABEITI MENDIKUTE | Zamudioko EH Bilduko alkategaia



“EH Bilduren zerrenda egitean, gauzak beste modu batera egin daitezkeela erakutsi dugu”

gure ekimenetan, eskaeretan eta informazioa eskuratu nahietan.

Zer proposatzen duzue parte hartzea hobetzeko?

Munduan zehar esperientzia ugari dago erakusten dutena parte hartzeko bide horien diseinua bera modu kolektiboan egin behar dela, parte hartu nahi duten herritarrekin batera. Hori ondo eginez gero, prozesu parte-hartzaile zehatzak sortzen dira modu naturalean, aldez aurretik planteatutako beharrezanez erantzuten dietelako. Seguru Zamudion horrek prozesu parte hartzaile zehatzetara eramango gintuzkeela, denon beharrei erantzuteko.

Ez duzu uste zaila dela benetako prozesu parte-hartzaileak sortzea?

Ez. Errealitatean oinarritzen gara, eta udal hauteskundeetarako gure zerrenda egiteko prozesuan erakutsi dugu. Zamudioko herritar guztiei aukera eman diegu hautagaiak proposatzeko, eta ondoren, behin betiko zerrenda bozkatzeko ere bai. Aurreko udal hauteskundetan ere gauza bera egin genuen. Parte hartze handia lortu dugu.

Nolakoa da aurkezten duzuen taldea?

Gaitasun handiko talde plurala da, Zamudioko herriarekin konprometitua. Gutariko asko eta asko herriko hainbat taldetako partaideak gara eta ohituta gaude modu kolektiboan erabakiak hartzen. Horretan egingo dugu indar: erabaki kolektiboetan oinarritutako Zamudion. Bide horretan erakutsiko dugu gure gaitasuna, konpromisoa eta lan egiteko gogoia.

Zer aldatuko litzateke Zamudion EH Bilduko Alkatzetzarekin?

Kudeaketa eredua goitik behera aldatu behar da. Herritarrak ikusle hutsak dira udalaren erabakietan. Hasiera-hasieratik inplikatu behar dira herritarrak erabakiak hartzeko prozesuan: nola parte hartu nahi den erabakitzeko, parte hartzearen moduek nolakoak izan behar duten, zein gaitan...

Kudeaketa-ereduaz gain, beste ezer hobetu daitezkeela uste duzu?

Bai, gauza asko hobetu daitezke. Argi daukagu alderdi guztiok ez ditugula balio berberak defendatzen. EH Bildun zalan-tzarik gabe ikusten dugu udala ez dela enpresa pribatu bat: erakunde bat da eta ordezkatzan dituen herritar guztien bizibaldintzak hobetzearen alde egin behar du. Udala ez da izan behar herritarren beharrezan eta eskubideen gainetik dauden interes pertsonalen eta proiektu ekonomikoen defendatzaile.

Oposizioko alderdiekiko erlazioan nola jokatuko zenuke?

EH Bilduk herritarrek aukeratutako ordezkari guztiek euren lana traba, atzerapen eta bazterketa barik egin ahal izango dutela ziurtatuko du, euren eskubide politikoak eta euren boto-emaleenak goitik behera errespetatuz. Badakigu zer garrantzitsua den aipatutako hori, legislatura honetan horixe pairatu behar izan dugulako

Sondika (1970). Azken lau urteotan zinegotzia eta EH Bilduko bozeramailea izan da Zamudioko Udaleko Ogasun Sailean. Zamudioko hainbat taldetan buru-belarri sartuta dago. Bizitza soziala inplikatuz ulertzen duen emakumea da. Horrek sindikalgintzan langileen aldeko lan garrantzitsua egitera eramandu, baita emakumeek jasaten duten problematikari aurre egiten dion mugimenduan ere. Berarentzat oinarritzakoa da sentsibilitate sozialeko inplikazio hori.

“Kultura Etxean erabilera askotariko aretoa egin eta pelotalekua barriztatu gura doguz”

IGOTZ LÓPEZ TORRE | Zamudioko EAJko alkategia

Legealdi honetako lehentasunetako bat enplegua zan.

Enpleguak gora egin dau. Jarraipen estua egiten ahalegindu gara, industriaren alde eginda eta prestakuntzea eta enplegarritasuna bultzatuz; gazteen artean, batez be.

Herritarraz hurbiltasuna oinarritzkoa da, ezta?

Entzuten jakin beharra dago, herritarrek zer gura, zer pentsatzen eta zer sentitzen dabon jakiteko. Horrek zerbitzuak hobetzeko balio dau, eta, gainera, zerbitzu eta azpiegitura barrien proposamen eta ideiak hartzeko modu bat be bada. Zuzeneko hartu-emonetarako, AdiZamudio app-a bezalako bide eta erreminta arinak bultzatu behar doguz.

Zamudio alkarbizitzarako gune egokia al da?

Herria gero eta aproposagoa da alkartzeko, alkarregaz bizitzeko; familiek, astialdian, lasaitasuna eta segurtasuna dauke, instalazio egoki eta ugariak dauke...

Zeintzuk dira datozen lau urteetarako EAJ-PNVren proposamenak?

Asko dira. Esaterako, erabilera askotariko antzoki edo aretoa proposatzen dogu. Pelotalekua eta aldagelak barriztatu dira, eta ikasteko gela hobetu egingo da. Auzoetan, oinezkoentzako bide gehiago egingo dira. Lan bako herritarrei bakoitzak behar dauan prestakuntza emongo jake. Ekintza gehiago bideratuko dira Zamudioko bizimodua ingurumenarekiko jasangarria izan daiten. Segurtasun eta alkarbizitza arloetan neurri barriak hartuko dira, izan doguzan lapurreta, delitu eta okerrak ekiditeko. Lanean jarraituko dogu andre eta gizonen bardintasuna lortzeko eta genero-indarkeriari aurre egiteko. *Belarriprest* diran herritarren kopurua areagotu daiten be lagundu egingo dogu. Gazteentzako handiagoa egiteko eta gazteentzako gune berrien proiektuak prestatzen hasita gagoz. Galbarriaturako konponbidea taxutuko da behingoz, eta Maurikobaso antzaldatzeko lehenengo proposamena be prestatzen gabil.



Igotz López Torre zamudioztarra Bilbon jaio zan 1974an. Zuzenbidean lizentziatu zan Deustuko Unibertsidadean, eta hainbat graduondo eta ikastaro egin dauz, besteak beste, Toki Erakundearen Gobernu eta Zuzendaritza, Mondragon Unibertsidadean. Bankaria izan da luzaroan, eta kudeaketan ohitua. Unibertsidadean eta Zamudion hainbat alkateetako kide eta parte-hartzaile izandakoa. 2007ko legegintzaldian Zamudioko kultura zinegotzi izan zan eta 2011n hartu zuen alkatearen makila. Ekintzailea, eraginkortasunez ekiten deustoa arazoak konpontzeari eta beti dau jarrera irekia. Urte askotan saskibaloian ibilia, orain, ahal dauenean, urpekaritza egiten dau.

Sortzen dan hondakinaren arabera ko tasa noiz ezarriko da?

Eragindako sektore desbardinekin parte hartzeko prozesuak ipini dira martxan, eta

“Segurtasun eta elkarbizitza arloetan neurri barriak hartuko dira”

emaitza sano pozgarriak eskuratu doguz. Tasa hurrengo hamabi hilabeteetan ezarriko da behin betiko; baina lehenago, trantsizioaldi bat egongo da.

Zelakoa da zugaz batera doan taldea?

Andre eta gizonen talde heterogeneoa; ezaugarri, prestakuntza eta sektore desbardinatutako kideak. Belaunaldi eta bi-zipen desbardinatutakoak, eta Zamudioko zonalde eta auzo desbardinatutakoak be bai. Pertsona barriak dagoz eta ikuspegi barriak dakarrez. Lanean hasteko ilusioz beterik datoz, eta, nire ustez, hori bereziki da erakargarria.

“Berton harro bizi eta behar egiteko aukerea emoten dauan Erandion sinisten dot”

AITZIBER OLIBAN GUTIERREZ | Erandioko EAJko alkategia



Zeintzuk dira Erandioarentzat daukazuzan lehentasun nagusiak hurrengo lau urteei begira?

Besteak beste, honakoak dira nire lehentasun nagusiak: langabeziaren aurkako burrukea, prestazio sozialen estaldurea eta herriguneetatik asago dagozan biztanle-eremuen arreteta. Enplegurako programak eta enpresen foroak be funtsezkoak dira. Agirikoa danez, enplegua eta industria bultzatzeko orduan koordinatuta behar egiten badogu, emoitza lortuko doguz.

Zeugaz egongo dan giza taldeak ondo baino hobeto ezagutzen dau Erandio, baita udal bizimodua eta udalerrien arazoak, eskaerak edota preminak be.

Niretzat funtsezkoa da Erandioaren alde behar egiten dauan giza taldea eratzea. Eurakaz batera, biztanleen ondoizatea handitzea daukat helburu. Horretarako, sektore batzuetan sakontzen ahaleginduko naz; barbarako, programen eta beken bidez umeen zein gazteen hezkuntza

osotzea; ekintza zehatzen bitartez bizimodu osasungarriaren aldeko apustu irmoa egitea; eta ingurumena errespetetan daben balioak zabaltzen ahalegintzea. Era berean, jakin be badakit gaur egun arazo handiak dagozana aparkalekuen, kirolzerbitzuen eta enpleguaren kalidadearen arloan. Hori dala-ta, arlo horreetan behar

Aitziber Olibanek 38 urte daukaz. Politikako eta Administrazioaren Zientzietako lizentziaua da, baita Merkaderako Ikerketako eta Tekniketako be. Era berean, Partaidetzazko Demokraziarako Dinamizazioaren eta Tekniketako graduondoa be badauka. Bere udalerriko bizitza politikoa ezagutzen dau, agintaldi bitan udal korporazioaren zinegotzia izan dalako, 2003tik 2011ra, hain zuzen be. Horrezaz gainera, barruko karguak be bete dauz Udaltzargarrean, eta Bizkai Buru Batzarreko idazkaria da gaur egun.

“EAJk urteetan eta urteetan egiaztatu dau behar besteko bermea eskaintzen dauala kudeaketari eta ahalmenari begira”

egingo dot bete-betean, konponbideak emoteko.

Euskalduna eta euskaltzalea. Horrek zeresana eukiko dau zure beharrean, aukeratzen bazaitue?

Egia esan, ni neu ez nintzateke nazana izango sustraiok eukiko ez baneuz. Base-rrian, Astrabuduako urteeran, euskerea, natura eta euskal kultura maitetuten ikasi neban. Amamak ahalegin handia egin eban hori holan izan eiten.

Zure eretxiz, EAJren aukerea onena da Erandioarentzat?








Euzko Alderdi Jeltzalean afiliatu nintzanean, argi eta garbi neukan beraren proiektua guztiz bat datorrela nire ingurunerako eta bertako jentearentzat gura dodanagaz, balioak daukiezalako eta konpromisoa hartu dabelako gure herriagaz. Nire ustetan, EAJk urteetan eta urteetan egiaztatu dau behar besteko bermea eskaintzen dauana kudeaketari eta ahalmenari begira, modu integralean behar egiteko, ekonomiako gorabeheretara hobeto aurre egiteko eta erandioztarren gizarte-ondoizatea bermatzeko orduan.


Zergaitik onartu zenduan alkategaia izatea?

Ohorea eta erronka da Erandioaren alkategaia izatea. Pozgarria da benetan, gero eta hobea, modernoagoa eta atsegina gero Erandio ikusi eta gozatu gura dodalako. Gure biztanleei berton harro harro bizitzen eta behar egiten segiduteko eta seme-alabei berton geratzeko aukerea eskaintzen deutsun Erandion sinisten dot.

UDALBATZAK

(2015-2019)





Tximintxaren ziztada berria

Tximintx Derioko euskara elkartearen hausnarketa-prozesu sakon batean ibili da murgilduta azken hileotan. Emaiza hau izan da: euskara elkartearen izateko euskaldunen komunitatea izatera pasatu da. Tximintxen bihotza, odola eta beroa herritarrak izango dira.

t: Itxaso Marina / a: Aner Mentxaka

“Perfektuak diren Derioko euskaldun inperfektuen komunitatea”. Tximintxe-koek horrela definitu dute egitasmo berria. Euskara elkarteak 16 urte bete ditu eta, partaideen esanetan, ordezkoa behar izateaz gain egiteko modu batzuk agortuta zeuden. Hori dela eta, hausnarketa-prozesuan hasi ziren buru-belarri, horrek nora eramango zituen ez zekiten arren. “Derion Ahora eta Euskaraldia egitasmoei esker jende asko batu zaigu, eta pentsatu genuen zerbait egin beharko genuela pertsona horiek Tximintxen kide ere izateko”. Euskara elkarteak orain arte egindako lanari esker, euskaldunen komunitatea egon da Derion, baina, azaldu dutenez, hura saretu barik egon da. “Tximintx euskaldunen komunitatearen xede nagusia


*“Komunitatean,
kideek eurek erabakiko
dute zer sortu eta
zein ibilbide hartu”*

da Derioko euskaldunak saretzea, trinkotzea, elikatzea, boteretzea eta handitzea. Elkarteek, askotan, sortu eta eman egiten dute, hartzaile jakinik izan barik; komunitatean, berriz, kideek eurek erabakiko dute zer sortu eta zein ibilbide hartu, eta lehentasuna edukiko dute hartzaile moduan”.

Prozesu sakona bezain irudimentsua izan da, eta tximintxaren biologian oinarritu dira komunitatea egituratzeko. Ingurune egokian daudenean eta bero

dagoenean, tximintxek ziztatu eta odola xurgatzen dute, bihotz-taupadak orekatzeko eta bizitzeko. *Bihotz, odol* eta *bero* kontzeptuak kontuan hartuta, hiru partaide mota asmatu dituzte. “*Bihotz* direnek komunitateak erabakitzen duena kudeatu eta dinamizatzeko dute; *odola* direnek lan zehatz batzuk egingo dituzte *bihotza* direnekin batera; eta *bero*a direnek lan puntualagoak jorratzeko dituzte”. Bazkide kontzeptua bera ere aldatu egin dute. “Bazkideetza batez ere ekarpen ekonomiko egitearekin lotu da; komunitatean, bazkideetza baino ardurakideetza egongo da: dirurik jaso barik, partaideek ardurak hartuko dituzte. Bazkideak desagertu egingo dira, eta haiekin batera, zuzendaritza-batzordea; hau da, presidentea, diruzaina eta abar”. Beraz, lehengo ereduen ordean, militantzia garaikidea sustatuko





Komunitateaz hausnartzeko orduan, besteak beste, ekonomia soziala, feminis-

zen". Hamasei urteetan zer egin eta zer lortu duten ere aztertu dute, eta idatziz jaso dira Tximintxen oinarri nagusiak. 2019a trantsizio-urtea izango da; komunitatea martxan jartzeko urtea, hain zuzen ere. Etorkizunean zein norabidetara joko duten, hori komunitateak berak hartuko duen erabakia da. "Tximintx tresna bat da, eta Derioko euskaldun inperfektuok nahi duguna izango da. Udazkenean prozesu parte-hartzaile bat zabalduko da, hurrengo bost urterako egitekoak, helburuak, indarguneak eta aihulguneak aztertzeko. Ezin dugu esan zertan ibiliko den Tximintx 2020an...". Nolanahi ere, argi dute komu-

ERREKA
JAT  **ONDO**
ETXEA

*Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak*

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

*Hiru partaide mota
egongo dira:
bihotza, odola
eta beroa*

*Bazkidetzaren
ordez, militantzia
garaikidea
sustatuko dute*

*"Tximintx tresna bat da,
eta Derioko euskaldun
inperfektuok nahi
duguna izango da"*

nitatearen bidez herrian egon daitezkeen euskaltasuna bizitzeko modu guztien baliola azpimarratuko dutela, horien alderdi positiboak jaso eta bistaratu.

Tximintx komunitateak Ziztada berri papera kaleratuko du urtean lau aldiz, eta han zenbait gai izango dituzte hizpide, hala nola Deriok euskaraz bizitzeko eskaintzen dituen aukerak, herriko euskara eta lehiaketak. Etapa berria hasteko, euskara-ikastaro bat emango diote saritzat lehen lehiaketaren irabazleari. "Tximintxek, oharkabea, odola xurgatu digu eta hainbat herritarri euskalduntasuna eta euskaltzaleasuna kutsatu dizkie". Etapa berriaren harira, logoa berri dute, eta, elkartea hankaz gora jarri duten moduan, tximintxa ere buruz behera ipini dute, euskara ardatz nagusia izanda ziztatzen jarraitzeko prest dagoela adierazteko. Espero dezagun hori luzaroan izatea.



 **Carrefour**
express

ORDUTEGIA
Astelchenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Bilboko Udalak harrerea egin deutso Bidaideak taldeari, Euroliga 1 txapelketea irabazi izanagatik

Europako txapelduna

t: Gaizka Eguzkitza

PATXI SUAREZ | gurpil-aulkiko saskibaloia jokalaria

Europako txapelduna izatea ez da makala. Bidaideak Bilbao BSR taldea igaz saiatu zuen txapelketea irabazten, baina finalean Galatasaray taldearen kontra galdu eban. "Arantzea kendu dogu. Igazko porrota gogorra izan zuen: finala non eta etxean galdu genduan, puntu biko aldeagaz... Erakutsi genduan irabazteko gauza ginala. Aurten gure txandea zuen", dino pozarren Patxi Suarezek. "Igazko partidak irakutsi euskun ahalegin ikaragarria egin behar dala final batera heltzeko. Batzuetan talde biren arteko aldea ez da oso handia eta xehetasun txikiak erabagigarriak dira".

Bilbotarrek txapelketa horretan be hartu eben mendekua. Izan be, lehenengo partida Besiktas turkiarren kontra galdu eben. Ondoren, Bidaideak-ek Sheffield Steelers, Köln 99ers eta Le Canet taldeak hartu ebazan mendean, eta azkenean, fi-

Patxi Suarez larrabetzuarrak Bidaideak Bilbao BSR taldean jokatzen dau, munduko gurpil-aulkiko saskibaloia talderik onenetarikoan. Apirilean, Sheffield hirian, Bidaideak-ek lehenengo aldiz irabazi eban EuroLiga 1, Europako bigarren txapelketarik garrantzitsuena. Patxi min hartuta dabil eta ezin izan eban jokatu, baina garaipenari eta bere ibilpideari buruz berba egin deusku.

nalean, 67-71 irabazi eutsen Besiktas taldeari. "Lehenengoa galdu izanak izugarrizko etsipena eragin euskun, baina, aldi berean, horrek amorru handiagoa emon euskun aurrera jarraitzeko. Onenak izan gara eta kopea merezi izan dogu".

Patxi urrunetik, etxetik, ospatu behar izan eban garaipena. Izan be, azken hila-bete bietan lesionatuta ibili da eta ezin izan zuen Sheffieldera joan. "Eskumuturre-

ko tendinitisak jota ibili naz. Oso lesino txarra da, mingarria dalako eta denbora pila bat behar dalako guztiz osatzeko. Peneia izan da finalean egon ez izana, garaipen handia izan dalako. Gaur egun, erabat osatu naz eta jokatzeko gogo handia dot (kar, kar). Tira, garaipen gehiago etorriko dira, ziur nago".

Patxiaren taldea fin dabil aurton. Esate baterako, lehenengo aldiz jokatu dau Txapeldunen Liga. Txapelketa horretako lehenengo fasea gainditu eben; bigarrena, aldiz, ez, baina Euroliga 1 txapelketarako sailkatu ziran. Eta azkenean kopea ekarri dabe etxera. "Etsipen txikia izan zuen Txapeldunen Ligatik kanpo gelditu izana, batez be arerioen parean lehian sartzeko gauza ginala erakutsi gendualako. Dana dala, ez jat atzera begira gehiegi gustatzen. Oraintxe Euroliga 1 irabazi dogu eta

"Liga irabazteko kanporaketak gogorrak izango dira, baina hobeak gara eta egurra emongo deutsegu"

"Gehiago jokatu gurako neuke, jakina, baina entrenatzen jarraituko dot eta helduko da momentua"



laster Estaduko liga irabazteko kanporaketak jokatu doguz. Horixe da gaur egun interesatzen jatana".

Europar ez eze, Estaduko ligan be sendo dabilz Patxi eta taldekideak. Bidai-deak taldeak Ligea irabazi dau, Mideba Extremadura taldeagaz bardinduta. Beraz, maiatzean lauuko finala jokatu dabe. Fi-



nalerdian, BSR Amiab Albacete taldearen kontra arituko dira eta hori irabazi ezker, finala, lIunion edo Extremaduraren kontra. Patxi oso baikor agertu da. "Oso gogorra izango da, baina guk uste dogu hobeak garala eta egurra emongo deusegula".

Entrenadu eta entrenadu

Espainiako gurgil-aulkiko saskibaloia-ren maila oso handia da, munduko onen-etarikoa. Aurreko Joku Olinpikoetan, esate baterako, Espainiako selekzinoak zilarrezko domina lortu eban Rio de Janeiro hirian. Eta Bidaideak taldea be munduko talderik onen-etarikoa da. Taldeko maila hain da handia izanik, Patxik jokatzeko aukera gitxi dauka. Halanda be, ez dago horregaitik kezkatuta. "Gehiago jokatu gurako neuke, jakina, baina entrenatzen jarraituko dot eta helduko da momentua.

Entrenau eta entrenau eta entrenau. Horixe da egin behar dodana".

Taldeak lauzpabost aldiz entrenatzen dau astean. Patxirentzat ez da gogorra, hola ia azken 10 urteotan ibili dalako. Gaur egun, larrabetzuarrak 20 urte dauz, baina 11 urte ebazala sartu zan taldeko saskibaloio-eskolan. Ondoren, hasi zan lehenengo taldean entrenatzen eta, 2014tik aurrera, lehenengo taldeko kide da. Taldeagaz batera, Patxi bera be hazi da eta, ibilbide horretan, gazte larrabetzuarrak Euskadiko selekzinoagaz jokatu dau. Hogeita bi urte azpiko Estaduko selekzinoagaz be ibili da eta horregaz brontzezko domina lortu dau aurten, Italian jokaturako Europako Txapelketan.

Saskibaloia alde batera itxita, Suarez Ingeniaritza dabil ikasten Deustun. Mutil praktikoa da eta bizitza egunez egun bizi dau, etorkizunari gehiegi begiratu barik. Eroso bizi da Larrabetzun, ikasten eta saskibaloian jokatzeko, eta ez dau kanpora joateko edo bizitza aldatzeko asmorik. "Oso gustura nago etxean, primeran zaintzen nabe. Karrerea bukatu arte, ez naz hemendik mugiduko".

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK

EKAINEAN, UZTAILEAN ETA IRAILEAN

NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA
EKAINAREN 3TIK 26RA	C1	8:30 - 14:00	90 eskola-ordu	MAIATZAREN 28A
UZTAILAREN 1ETIK 24RA	B1-B2-C1	8:30 - 14:00	90 eskola-ordu	EKAINAREN 21A
IRAILAREN 2TIK 25ERA	B1-B2-C1	8:30 - 14:00	90 eskola-ordu	EKAINAREN 21A
IRAILAREN 9TIK 20RA	MINTZAMENA	Hiru ordu egunero	30 eskola-ordu	EKAINAREN 21A

MATRIKULA ZABALIK

DEITU ETA INFORMA ZAITEZ

944540062



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierri.eu

Esne beltza. a: Gaizka Peñafiel



Pazko prest!

Eguraldi Ona jai-batzordeak zamudioztar guztiek ondo pasatzeko moduko jai-egitaraua antolatu dau atzera be. Txapelketa gastronomikoak, kontzertuak, kaleko animazioa, pelota partiduak, umeentzako parkea... Pazko jaiek ekintzaz beteko dabe Zamudio ekainaren 7tik 10era bitartean.

Txupinazoa bota eta kalejiran urtengo dabe Kultura Etxeraino. Ohikoa dan moduan, txanpinoi-jana eskainiko da bertan. Ondoren, umeentzako berbenea egongo da Kantu Kolore taldearen eskutik. Kantu Kolore proiektua arlo ezbardinetan dabilzan irakasleek osatzen dabe eta, musikea ardaztat hartuta, gaur egungo hainbat gairi musikea eta letrea ipintzen deutsee, gai horreekiko sentsibilizazioa zabaltzen laguntzeko. Barikuan beste hitzordu bi edukiko doguz musikeagaz. Alde batetik, Lirain Txiki eta Soinu Bidea abesbatzek eta Zamudioko Kamara Korallak kontzertua eskainiko dabe San Martin eleizan, arratsaldean; eta bestetik, Esne Beltza taldeak agertokira igoko dau gauean. Kanean zazpi lan dabezala, Xabi Solanok eta gainerako taldekideek kanta barriak zein aspaldikoak ekarriko dabez Za-

**ASESORIA DIZA
SEGUROS BILBAO**

Txorierriko etorbidea, 7 (ZAMUDIO)
Tel.: 94 452 13 28

- AHOLKULARITZA LABORALA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- KONTABILITATEA
- ASEGURUAK

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

PAZKO JAIAK 2019!

BAGILAREN 18tik 21era, ZAMUDION

**ERASO
SEXISTARIK
GABEKO
JAIEN ALDE**

**Kontzertuak, sukalki eta
tortilla txapelketak,
ume-jolasak, txaranga,
kalejirak...**



mudiora, zaletuei gozarazoteko. Kontzer-
tu hori bukatu, eta musikak eta jai-giroak
jarraitu egingo dabe Oxabi erromeria tal-
deagaz. Gainera, aitatu beharra dago bari-
ku gauean tren-zerbitzu bereziak egongo
dirala. Lehenengo tren 01:52an aterako
da Lezamarantz; eta 02:12an, Bilborantz.
Bigarren tren 04:52an aterako da Leza-
marantz; eta 05:12an, Bilborantz. "Urte
batzuk dira herriko gazteak jai-batzordera
jo dabela eta euren proposamenak jakina-
razoten deuskuezala. Gazteei entzun deu-
tsegu eta proposamenok onartu doguz.
Eta asmau be egin dogu, izan be, gero eta
jente gehiago batzen da gaueko kontzer-

tuetan: gazteak zein hain gazte ez diranak,
baita kanpotar asko be. Aurreko urteotan
ilara handiak egon dira tren hartzeko,
eta horregatik ahalegindu gara aurten be
tren-zerbitzu bereziak kontratatzen", azal-
du dau Manuel Francisco Heredero kultu-
ra zinegotziak.

Zapatuan, Sukalki Txapelketea izango
da, jai-egitarauko ekintzarik garrantzitsue-
netarikoa dana. Txapelketa xumea da Za-
mudiokoa, herritarren artekoa: normalean
8-10 kazola aurkezten dira. "Eguraldiak
eragina izan ohi dau parte-hartzaileen
kopuruan, baina jentea animatzen bada,
oso egun polita izaten da. Jai-batzordeak

txapelketan parte hartzeko deia egin gura
deutse zamudioztarrei, lagun-taldee zein
norbanakoei be bai. Era berean, animau
gura doguz Tortilla Txapelketan be parte
hartzera. Karpea egongo da; beraz, egu-
raldi txarra ezin da atxakitzat erabili. Su-
kalkiak eta tortillak prestatzen diran bitar-
tean, umeentzako parkea egongo da eta
txikiek zaldien gainean ibilteko aukerea
be edukiko dabe. Zamudioko sukalkirik
eta tortillarik onenak nork egiten dituen
erabagi ondoren, Broken Izotz musika
taldeak girotuko dauz bazkaria eta bazka-
londoa. Hiru Bat dantza taldeak dantzen
agerraldia eskainiko dau arratsaldean,

*Jai-batzordeak
Sukalki
txapelketan parte
hartzeko deia egin
deutse zamudioztarrei*

*Bariku gauean tren-
zerbitzu bereziak
egongo dira: 01:52an eta
04:52an, Lezamarantz;
eta 02:12an eta
05:12an, Bilborantz*



- ✓ Gosariak
- ✓ Pintxoak
- ✓ Otarkeak
- ✓ Entsaladak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Hamburgesak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Odolosteak

Txantxangorri, 2
48170 ZAMUDIO
94 471 83 41

Eramateko janaria

HORTZ KLINIKA

GANDIAGA

94 608 62 30 - 31

klinikagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. erk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AIKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

eta Dunbots elektrotxarangeak musikea eroango dau bazter batetik bestera, harik eta gaueko kontzertuak hasten diran arte. Agertoki nagusian Kartzarot, Kaotiko eta Akerbeltz ibiliko dira. "Kartzarot Txorierriko musika taldea da, Lezamakoa, eta disko barria atera dabela aprobetxatuta, bada, pentsau dogu jaietara ekartea". Kaotiko taldeak be diskoa kaleratu barri dau eta, ziur asko, Agurainekoek ez deutsee zale-tuei huts egingo. Parrandan jarraitzeko gogoia dauenak Akerbeltz taldearen erro-meriaren eskutik egingo dau.

Domekea, lasaia

Domenkea egun lasaia izango da. Goizean pelota partiduak egongo dira frontoian, eta mezea; eta arratsaldean Danieuris eta Daniellis Moya Avila ahiztek Kubako soinuak eta euskerea buztartuko dabez D'Capricho musika-egitasmoan. Astelehenean amaieria emongo jake aur-tengo Pazko jaietara. Mezea, kopaua eta kar-ta txapelketea antolatu dira azken egun horretarako.

Eguraldi Ona jai-batzordeak herritar guztientzako jai-egitaraua antolatu dau, aurreko urteetako eskemeari jarraituta, emaitzak onak izan ohi dira eta. Herriko al-karteek konpromiso handia erakutsi dabe egitaraua prestatzeko orduan, eta horree-tako batzuk, ganera, jaietan be emonaldia eskaintzen dabe. Euren lana zein norba-nakoena ezinbestekoa da. Lerro honee-tatik, jai-batzordeak zamudioztar guztiak animau gura dauz kalera urtetera eta Paz-ko jaietara gozatzen.



Kartzarot taldea

Jai-egitaraua

Ekainak 7, barikua

- 18:30 Txupinazoa eta kalejireia.
- 19:30 Txanpinoi-jana, Kultura Etxean.
- Kantu Kolore, Kultura Etxean.
- 20:30 Abesbatzak, eleizan: Lirain Txiki (Gorliz), Soinu Bidea (Basauri) eta Zamu-dioko Kamara Korala.
- 23:30 Kontzertuak: Esne Beltza + Oxa-bi.

Ekainak 8, zapatua.

- Sukalki txapelketea, Bidekoetxe parkean
- 09:00 Tortilla eta sukalki txapelketeta-rako izena emotea.
- 11:00 Umeen parkea eta zaldien gai-nean ibiltzea, Bidekoetxe parkean.

- 13:30 Tortilla eta sukalki txapelketen sariak banatzea.
- 15:30 Broken Izotz musika taldearen saioa, Bidekoetxe parkean.
- 18:30 Hiru Bat dantza taldearen emo-naldia, Kultura Etxean.
- 20:00 Dunbots elektrotxarangea.
- 23:30 Kontzertuak: Kartzarot + Kaotiko + Akerbeltz.

Ekainak 9, domeka

- 10:00 Pelota partiduak, frontoian.
- 12:00 Mezea.
- 18:00 D'Capricho ikuskizuna, plazan.

Ekainak 10, astelehena

- 12:00 Mezea. Ostein, kopaua.
- 16:00 Karta txapelketea, Adintsuen Etxean.

PiKoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782

**OAKLAND
ENGLISH**

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

MAILA GUZTIAK
ADVANCED IN ENGLISH
FIRST CERTIFICATE
HIZKUNTZA ESKOLA
BUSINESS ENGLISH
BATXILERGOA
D.B.H.

**TOLDOS
TXORIERRI**

TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sententzioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.

t: Einer Larrabeiti

Gogoratzen al dituzue parkeetako balantza itxurako zabuak? Punta bakoitzean pertsona bat eseri, eta batek oinekin lurra ukitzean bestea igo egiten da. Hala ibiltzen ginen, desorekaren jolasean, poz-pozik. Bizitzako hainbat kontutan muturretan kokatzeak ez du gauza onik ekartzen; alabaina, parkean jarraituko bagenu bezala jokatzeko dugu maiz: perfekzioa ala porrota, bizimodu sedentarioa edo gimnasiotik irteten gabekoa, gainerakoekiko mesfidantza edo itsu-itsuko konfiantza.

Sarritan, nekatuta, minduta edota urduri amaitzen dugu eguna, eta otutzen zaigu bitaminen beharra izango dugula, gaixorik jartzen ariko garela edo adinaren ajeak izango direla. Hala, gorputza soilik kanpotik zainduta hobetuko garelakoan, bizkarra ematen diogu errealitateari. Bada, gure barneari eta kanpoari erreparatzen badiegu, harremana aurkituko dugu emozionalki sentitzen dugunaren, pentsatzeko moduaren eta gorputzaren egoeraren artean. Gainerakoekin ditugun harremanek ere eragina dute lotura horretan, eta hareexek kudeatzeko dugun eraren isla da komunikazioa.

Onartzen dugun baino gehiagotan, gai honetan ere mutur batean edo bestean aritzen gara, hainbat kontu isildu edo modu txarrean

Oreka berreskuratzen


“Hilabete daramagu betiko moduan egon gabe; ez dakit, arraro dago... Ez du denborarik niretzat, eta bere atzetik ibili behar dudala ematen du. Zerbait egingo nuen txarto... Edo, zer demontre, bera bai dela adiskide txarra! Inozoa...”

*Ez al da mina gure
pentsatzeko, hitz
egiteko, harremantzeko
eta sentitzeko
moduaren emaitza?*

esanda: isildu eta inori ez esan; isildu eta egoeraz kanpoko pertsonarekin bakarrik hitz egin. Bestetik, esan gabeak edo gordeta dagoenak lehertzeraz eraman ohi du pertsona, modu txarrean komunikatuz, gerran balego bezala: aurpegiatzeak, errieta egitea, errua bota, eta abar. Halaber, joera horiek gauza bi dituzte amankomunean: onartuta eta ulertuta ez izatearen beldurra dute oinarrian, eta ez dute arazoari aurre egiteko balio.

Baina, zer dela eta bizi gara komunikatzea munduko gauzarik abstraktuena izango balitz bezala? Esaterako, norbaitek hau esango baligu hain txarto hartuko genuke?: “Ni X sentitu naiz + zuk X egin/esan/... duzunean + beste modu batean gustatuko litzaidake...”. Eta gu, formula horreen antzeko moduren batean azaldu-ta, ez ginateke hobeto sentituko? Noski, aurpegi txarrez esanez gero, mezua ez da ondo iristen.

Esaera batek dio txarto esanak edo esan gabekoak barrena jango dizula. Horren haritik, gazte zein heldu, tripako edo buruko minak jota ibiltzen gara, giharretako eta hezurretako mina ez denean. Hala, zentzuzkoa da pentsatzea bizi garen tokia, gure gorputza, barruan dagoen zerbaitengatik kaltetzen dela. Era berean, pentsamenduak eta emozioak gure barnetik datozela jakinda, ez al da mina gure pentsatzeko, hitz egiteko, harremantzeko eta sentitzeko moduaren emaitza?



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializatea:
Xafta-lanak
Zoruak

644522910 - 665703312 - 662772016

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5 Tlf. / Faxa:
48170 ZAMUDIO 94 452 29 10

Pedro Urtiaga baso-bertsolaria



t/a: Juan Luis Goikoetxea

Telefonoz deitu deust apirilaren erdian.

–Badakik nor noken, Juan Luis?

–Ene! Aspaldiko Pedro! Zer dinok?

–Bertsok jakazat asko hiri emoteko!

Bilboko etxe-bloke artean aurkitu dot 94 urteko gizona, berbaldun. “Nik bakarrean bertso asko egiten joat, milak. Goizetan danek entzuteko moduan. Sarri

auzoko andreak balkoitik balkoira”: *“Me-nudas canciones has echau hoy tambien”*. “Ulertu ezer be etxok egiten, baina andra baliokoa dok”.

–Zergaitik dinotsak heure buruari baso-bertsolaria hazala, Pedro?

–Ba, Mikel Zarate hil zoanean, han Garaioltzan, monumentu lekuan, bota naioazan bertsoak neure erara, ze don Jose Manuel abadeak, Dimakoak, esan joan bera badala bertsolaria, baina sasi-bertsolaria.

Eta nik esan neutsan: ni baso-bertsolaria nok.

–Orain 70 urte, Pedro, zein bertsolari zoan ezagun Txorierrri inguruetan?

Geldoetako Bustamanteren bertsoak –izatez Bitoriano Bolunbururenak– Sebastian Aurrekoetxeak jakizak. Horrez gainera, Bilbao mekanikoa be bazoan bertsolari, Erandio Goikoan-edo bizi zoan; Jose Unbe ezaguna be bai; baita Fermin Usue be: bertsolari itzela. Puñaladatik gora joanda bizi zoan, ni baizen zaharragoa. Bertsolari soltua izateko, ona. Haregaz batera, gortan txahalei, atze biko matutoei bertsoak eginda gagozak biok. Gero, Lontzo be bai, Geldoetan egona, Santuanekoa. Honak be bertsoa zeozertara amaitzen joan. Gero, Luis Oriden, Lezaman, inoiz harek puntu bikoak egiten joazan. Gero, Juan Ormaetxe, Taket, bozik gozoenatarikoa. Sarritan egin joat hagaz bertsoan Bilboko udaletxe aurrean. Gero, badakik, Mikel Zarategaz, ha edozertarako zoan ona-eta. Garaioltzan behin hiru orduan ekin geuntsan bertsoak egiteari, isildu be egin barik. Nik, gero, kantau joazat bertsoak San Migeleko ermitan, Lezamako eleizan... Zaletasuna berezkoa euki joat bertsoarako. Orain bertsolari gazteak jauzak, Malen neskea be bai.

Hori esanik bere bertsoz beteriko hiru zinta eskuratu daustaz boltsatxuan. Ea ez diran beste 15 urte igaroten, Pedro, alkar ikusi barik!

ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A
TAXI FEMADE

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Muskuilu- zopea



a: www.demoslavueltaaldia.com

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 700 g muskuilu
- Kipula ½
- 3 koilarakada tomate natural birrin-
dua
- Baratzuri-atal bat
- 200 g arroz
- Ereinotz-hosto bat
- Azafraia
- Perrexila
- Piperbaltz baltza
- Gatza
- 3 koilarakada oliba-orio

Prestetako errea:

Lapiko baten litro bat ur eta erei-
notza ipiniko doguz. Muskuiluak ondo
garbitu, eta lapikora botako doguz.

Lapikoa su txikian izango dogu, harik eta
muskuiluak irekitzen diran arte. Beste lapi-
ko batera orio-zurrusta bota, eta ha surtan
ipiniko dogu. Kipulea gehituko dogu (au-
rretik txikituta) eta erregosiko dogu. Egin-
da dagoanean, tomatea eta gatz apur bat
botako doguz, prijutukia egiteko.

Bestetik, muskuiluak irekitzen dira-
nean, surtatik kendu, eta oskoletik atera-
ko doguz. Gordeko doguz. Saldea irazi,
eta hori be gordeko dogu. Prijitua egin-
da dagoanean, arroza, azafrai apur bat
eta piperbaltza gehituko doguz. Osagai
guztiak nahasiko doguz. Ondoren, saldea
gehituko dogu. Arroza 20 minutuan ego-
siko dogu. Egosketea amaitu baino bost
minutu lehenago, baratzuria eta perrexila
(txikituta) eta muskuiluak botako doguz.

Fruta eta txokolate-konoak

Osagaiak:

- 300 g txokolate
- 12 izozki-kono
- Koloretako txinpartatxoak
- Intxaur txikituak
- Fruta: marrubiak, masustak, meloia,
sandia, kiwi, mahatsak...

Prestetako errea:

Txokolatea urtu, eta izozki-ko-
noen goiko alde igurtziko dogu.
Txokolatearen gainean koloretako
txinpartatxoak eta intxaurrak hau-
tsezatuko doguz, ha sikatu baino
lehen. Konoak izozkailuan sartuko
doguz, harik eta txokolatea gogor-
tzen dan arte. Konoak izozkailutik
aterako doguz, eta fruta-zatiakaz be-
teko doguz. Lehenengo zati handia-
goak sartuko doguz; eta ondoren,
txikiagoak.



a: www.fiestasy cumpleaños.com

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami suzua, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBARDITZA
Nerea Pedrosa Cole. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: www.yodibujo.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Kabitu ezina* (Elkar), Aintzane Usandizaga Lopez / Pili Aguado Sierra (Il.).

–*Basa* (Elkar), Miren Amuriza. (XX. Igartza Saria).

–*Ez da erditzea* (Elkar) Ione Gorostarzu.

–*Lerro etena (2004-2018)* (Elkar), Angel Erro.

LITERATURA: GAZTEAK

–*Mendi beltzeko munstroa - Zank eta Zoe 1* (Elkar), Mikel Valverde Tejedor / Ramon Olasagasti (Il.).

–*Gurdi Handia* (Elkar), J. M. "Txiliku" Olaizola / Eider Eibar Zugazabeitia (Il.).



Sudokua

		8	6	5				
4					7			
	3			9				
6	5		3					4
					7	5	8	
		7	4		1		9	
		5			3			
		4		9			5	
1						7		

9	3	7	5	4	2	8	6	1
2	5	1	8	6	7	4	9	3
8	4	6	3	9	1	5	7	2
3	6	9	1	5	4	7	2	8
1	8	5	7	2	9	3	4	6
4	7	2	6	8	3	1	5	9
7	9	8	4	1	6	2	3	5
5	2	3	9	7	8	6	1	4
6	1	4	2	3	5	9	8	7



txikitasunetik
handi

Landa eta itsasertz garapena

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Lauhazka. Kai-
era bat jarraitzeko*
eta *Ezpainetakoa*,
Txakur Gorria ko-
lektiboaren eskutik.
Ekainaren 20an,
19:00etan, Anguleri
kultur etxean.



Ikuskizunak

Derio

- > *Los árboles mueren de pie* antzezlan
(Alejandro Casona). Ekainaren 1ean eta
2an, 19:00etan, Gurea Aretoan. Udalak
eta Sutondoan elkarrekin antolatua.
- > *Mi problema es tu problema* antzezla-
na, Imperfeccionismo Mágico Teatro
taldearen eskutik. Ekainaren 7an,
20:30ean, Gure Aretoan. Prezioa: 3 euro.

Larrabetzu

- > *Zazpi senideko* antzezlan, Axut teatroa-
ren eskutik. Ekainaren 22an, Hori Bai
gaztetxean.

Kirolak

Sondika

- > Kirolari ateak zabaltzeko eguna.
Ekainaren 1ean, 10:30etik 13:45era.
- > Artebe kiroldegian: igerilekua, squasha,
padela...; Goronda Beko kiroldegian:
frontoia, gimnasioa, areto-futbola...
- > Txirrindulari eskolen biltzarra. Ekaina-
ren 1ean, 16:30ean, Aretebe kirolde-
gian.

Larrabetzu

- > ImpulsaT elkartearen aldeko asteburu
solidarioa: hiru taldeen arteko par-
tidak (kadete maila). Ekainaren 7tik
9ra, 18:00etan. Uritarra futbol eskolak
antolatua.
- > Kimu mailako futbol 7 txapelketa. Ekai-
naren 8an, goizez eta arratsaldez.
- > Emakume beterranoen arteko partida:
Athletic – Txorierri. Ekainaren 9an,
goizez.

Irteerak

Sondika

- > Urdaibai. Ekainaren 2an, 09:00etatik
15:00etara.



Jaiak

Derio

- > Eskolako jaiak. Ekainaren 7an, 16:00etan.
Derio Txiki gurasoen elkarrekin antolatua.
Ikasturte amaierako erakustaldia eta
flamenko-txokolatada. Ekainaren 9an,
17:30ean, frontoian.
- > San Joan sua: txitxi-burruntzia, txoko-
latada, sua piztea... Hauek antolatuta:
Udala, Odol Argia, Subyke, Lainomendi
eta Sutondoan.

Lezama

- > Eskolako jaiak. Ekainaren 15ean.
- > Zorrijaia: mendi ibilbidea, txaranga, he-
rri bazkaria, kirola, dantzak, musika, San
Joan sua... Ekainaren 23an, egun osoan.
Hauek antolatuta: udala, Gailur, Kurutze,
Ekiadzu, Zorritzeta, Astrapala, Lezama
Bizirik, Lezamako Mugetatik, Zorribike
eta trikitilariak.

Larrabetzu

- > Eskolako jaiak. Ekainaren 15ean.
- > San Joan sua eta antzerkia. Ekainaren
23an.

Musika

Larrabetzu

- > Musika eskolako ekitaldia. Ekaina-
ren 5ean, 19:00etan, Anguleri kultur
etxean.
- > Joseba Irazoki eta lagunak. Ekainaren
7an, 21:00etan, Hori Bai gaztetxean.
Sarrera: 8 euro.
- > Ikasturte amaierako kontzertua. Ekaina-
ren 13an, 19:30ean, Andra Mari elizan.
Domekak Hori Bain: Ertzak. Ekainaren
16an, 18:30ean.



Urdaibai. argazkia: Eusko Jaurlaritza / Mikel Arrazola

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Telleri, 5
48170 Zamudio
94 481 05 85

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behe (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

DERIO LANDABARRI BIZILEKUA HAZTEN DOA

26 etxebitzako proiektu berria, pertsonalizatzeko aukerarekin.



GUZTIZ HORNITUAK eta TERRAZA HANDIEKIN



GARAJEA



TRASTELEKUA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

ZURE ETXEBIZITZA GUREA BEZAINBESTE AXOLA ZAIGULAKO

EZ DA KOOPERATIBA

Informazio gehiago: Lainomendi kalea, 11 – Derio –

946 459 015

www.sukia.com



Zure etxean zaude Estás en tu casa